

PASAIAKO TXALUPARIAK

Lehengo batean itsasbehera zegoela jalgi nintzen Donostiatik.

Ezkerrera hartu nuen, Urumearen gaineko zurezko zubian barna. Bide bat agertu zitzaidan, noraezean hartu nuen, eta banindoan. Non nintzen sobera ongi ez nekiela nindoan mendian; emeki, nik hala-hola ikusten nuen auzo-paisaiak amets giroa esaten diogun beste barne-paisaia hori sortu zuen; begia nihauren baitara neukan itzulia eta zabalik, eta ez nuen haboro natura ikusten, ene espiritua ikusten nuen.

Ez nuke esaten ahal zer egiten nuen nik adierazi dizudan aldarte hartan; nolazpait ere oroitzen naiz minutu batzuk eman nituela geldirik ezkarre bati beha, non inurri bat zebilen harat-honat eta ene amets giroan gogoeta hauxe sorrarazi zuela ikuskizun hark; inurri bat ezkarre batean. Lana eta lurrina. Bi misterio handi, bi aholku handi.

Ez dakit zenbat denboraz jarraitu nuen bidean, tupustez milaka oihu berezik osaturiko harrabots zorrotz batek iratzarri ninduenean. Behatu nuen; mendi zut batzuen gibel-muga zeukaten bi muinoren artean nintzen, eta hogeituuasa²⁷ barru, neraman bidea zakar trenkatzen zuen itsas adar batera nindoan zuten. Han, bidea uhinetan murgiltzen zen hartan, bazegoen gauza berezi bat. Berrogeita hamarren bat emazte infanteria konpainia irudi ilara bakarrean lerrotuak, norbaiten aiduru baileuden, eta hari oihuka, eta deika, garrasi izugarritan. Honek hagitz harritu ninduen, baina ene ustekabea handitu egin zen puska baten buruan konprenitu nuelarik deitzen zuten hura, espero zuten hura, behar zuten hura, nihaur nintzela. Bidea hutsik zen, bakarrik nintzen, eta oihu ekaitz hura erengana zetorren. Hurbildu nintzen, eta balakagarrienak esaten zizkidaten, denek batean:

-Señor francés, venga usted conmigo!

-Conmigo, caballero!

*-Ven, hombre, muy bonita soy!*²⁸

Pantomimarik adierazgarri eta ugarienekin deitzen zidaten, eta haietarik nehor ere ez zen enegana hurbiltzen. Lurrean josiriko estatua biziak ematen zuten, mago batek aginduta: egizue oihu, egizue keinu; ez ordea eman urratsik. Adin eta itxura guztietarik ziren, gazteak,

²⁷ Antzinako neurri unitatea, bi metro ingurukoa (fr. *toise*; esp. *toesa*)

²⁸ Jaun frantsesa, zatoz enekin! / Enekin, jaun hori! / Zatoz, gizona, polita naiz oso!

zaharrak, zatarrak, politik... politik koket eta apain, zaharrak pilda hutsez. Landa-herrietan, emakumezkoa ez da tximeleta baino zoriontsuagoa. Tximeleta har izanez hasten da; hemen halaxe zahartzen da emakumea.

Denek batera egiten zutenez hitz, ez nion nehoi ere entzuten, eta momentu batzuk behar izaten nituen konprenitzeko. Noizbait, bazterrean estekaturiko txalupa batzuek eman zidaten argitasuna. Txalupari talde baten erdian nengoen, itsasoa iragateko eskaintza egiten zidatela.

Baina nolatan emakumezkoak, eta ez gizonezkoak, txalupariok? Zer esan nahi zuen muga bat zeukala eta ezin pasa zitekeela ematen zuen halako grina biziak? Azkenik, nora eraman nahi ote ninduten? Beste hainbeste enigma, beste hainbeste arrazoi aitzina egiteko.

Izena galdetu nion politenari; Pepa zeritzan. Bere txalupara egin nuen jauzi.

Orduan beste txalupa batean zen pasaiari bat ikusi nuen; luzaz egon beharko genukeen espe-roan nor bere aldetik; bat eginda berehala abiatzen ahal ginen. Azkena heldua nintzenez, nihaur nintzen besteagana bildu behar zuena. Utzi nuen, bada, Peparen txalupa. Pepak kopeta zimurtu zidan; pezeta bat eman nion; dirua hartu eta kopetilun jarraitu zuen, eta honek lausengatu egin ninduen zinez; pezeta bat, bidailagunak esplikatu zidan bezala, pasaiaren prezio *maximum*-aren halako bi baitzen. Dirua zeukan, beraz, nekea gabe.

Bitartean bazterra utzia genuen eta uhina eta muinoa, lurra eta ura, dena berde zen golko batean bogatzen genuen. Gure txalupatxoak bi emazteek gidatzen zuten, bata zaharra eta bestea gaztea, ama-alabak. Manuela alaba hagitz polita eta alegera zen, *la catalana* esaten zioten.²⁹ Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik aitzinerat, erramu banarekin, mugimendu motel, single eta dotorez. Biak ere poliki samar mintzatzen ziren frantsesez. Manuela, arrosa handi batek apaintzen zuen oihal zireztaturiko txanoarekin, ilea luze, txirikordatua eta bizkarrean zintzilik hemen ohitura den bezala, hori biziko zapia, kotapilot motza, gona ongi egina, munduko hortzik ederrenak erakusten zituen, barre handiak egiten zituen eta xarmagarria zen. Ama ordea, ai!, bera ere tximeleta izana zen.

Espaniar isil bat nuen lagun. Bera baino isilagoa ikusi nindueanean, beti gertatzen den bezala, eleka hasi zitzaidan. Aurrena, eiki, bere purua finitu zuen. Gero ene aldera itzuli zen. Espainian, purua finitu orduko hasten da solasa. Nik, erretzen ez dudanez, ez dut hitzik egiten, nehoiz ez dut izaten solas baten aitzakia ematen duen hori, puru baten azkena.

²⁹ Manuela “kataluniarra” txalupariaren ohar idatzi bat, “billete ezti bat” aurkitu zen Victor Hugoren paperen artean, honela zioena: “Ekarriko didan jaunarentzat musu baten balioa dauka paper honek. Manuela Ventura kataluniarra Pasaiaiko txaluparia mila zortziehun eta berrogeita hiruko abuztuak bederatzi”. (*Bueno para un beso que daré al señor que me traerá este papel. Manuela Ventura la catalana batelera de Pasages nueve de agosto mil ocho sientos cuarenta i tres*).

-Jauna –esan zidan ene gizonak espainieraz-, ikusia daukazu?

Espainieraz erantzun nion:

-Ez, jauna.

Ohartemazu *ez* horretan, eta miretsiko duzu. Esan izan banu naturalagoa den *zer?*, azalpen bat emanen zidakeen eta berehala ukanen nukeen ene enigma gakoa; baina nik ahalik eta luzeen mantendu nahi nuen ene misterioa, eta nahiago nuen nora nindoan ez jakin.

-Hala baldin bada, jauna, ikusiko duzu ederrik! –jarraitu zuen ene lagunak.

-Benetan? –esan nuen nik.

-Arras luzea da.

Arras luzea? Zer ote da?, pentsatu nuen.

Espainiarrak jarraitu egin zuen:

-Probintzian dagoen luzeena da.

Tira, egin nuen ene baitan, arazoa femeninoa da.³⁰

-Jauna –jarraitu zuen lagunak-, ikusi dituzu bestelakoak?

-Batzuk –erantzun nuen, lehenengoaren gisako arrapostua.

-Eginen nuke ez duzula hau baino luzeagorik ikusi.

-O, o, gal zenezake!

-Ea bada, zein dira ikusi dituzunak?

³⁰ “C’est la plus longue qu’il y ait dans la province”, diosku Hugok esan ziola espainiarrak.

Zaila zegoen. Ihardetsi nion:

-Baionakoa –baina ez nekien zertaz ari nintzen.

-Baionakoa! –egin zuen ene gizonak-. Baionakoa! Jakin ezazu, jauna, honek baino hirurehun oin gutiago dituela Baionakoak. Neurtu duzu?

Odol hotz berean erantzun nuen:

-Bai, jauna.

-Ba neur ezazu hau.

-Hala egingen dut.

Ikusiko duzu, zalduneria eskoadroi bat sartzen ahal da lerroan.

-Ez da posible.

-Esan dizut, jauna. Ematen du zalea zarela.

-Itsua.

-Frantsesa zara –jarraitu zuen ene gizonak, eta bozkarioz gaineratu zuen- eta nork daki ez ote zatozen berariaz Frantziatik ikustera.

-Halaxe da. Berariaz.

Espainiarra pozik zegoen. Eskua luzatu eta esan zidan:

-Ongi, monsieur –frantsesez esan zuen *monsieur* hitz hau, kortesia handia-, poztuko zara. Zuzena da i bat bezala, kordelaz egina, ikusgarria da.

Arraioa!, pentsatu nuen, golko polit honek ez ahal du ukanen Rue Rivoli bat luzagarri! Nolako trufa samina! Rue Rivolitik Gipuzkoaraino alde egin eta bertan aurkitzea itsas adar bati lotua, tristea litzateke gero!

Alabaina, gure txalupak aitzina egiten zuen. Orririk gabeko ateek eta uztarririk gabeko leihoek zulatutako lau hormatan erori antzean zegoen etxe handi bat zeukan lurmutur tipia zeharkatu zuen.

Ustekabean, liluran bezala, eta tramoiagilearen ziztua entzun gabe, dekoratua aldatu egin zen eta ikuskizun miragarri bat agertu zen ene aitzinean.

Zeru distiratsu baten gainean, gailurrak nabarmentzen zituen mendi handi berdeen errezel bat ; mendi hauen orpoan, etxe lerro bat hertsiki elkarganatu; etxeok denak zuriz, azafraiz, berdez... teila harroko teilatu zabal gorrixken luzapenak babesturiko balkoi handikoak bi edo hiru solairutan; balkoi horietan guztietan milaka gauza igerian: arropa idortzen, sareak, zapi gorri, hori, urdinak: etxe hauen orpoan, itsasoa; ene eskuinean, maldaren erdian, eliza txuri bat; ene ezkerrean, lehen planoan, beste mendiaren orpoan, beste etxe multzo bat dorre zahar desegin batera ematen zuten balkoiekin; forma orotako itsasontziak eta neurri orotako txalupak etxeen aitzinean paratuak, dorrearen pean lotuak, badian zihoazela; ontzi horietan, dorre horretan, etxe horietan, eliza horretan, bizitza bat, mugimendu bat, eguzki bat, aire bat eta ezin esan ahalako poztasun bat; horra hor zer neukan begi bistan.

Alegratasunaren eta handitasunaren ezaugarri bikoitza duen orok bezalako leku atsegin eta liluragarri hau, ikusi dudan ederrenetarikoa den leku ezezagun hau eta ezein *touriste*-k bisitatzen ez duena, Suitzan balego

mirestua eta Italian balego ospetsua izanen litzatekeen lehor-itsasoko leku apal hau, Gipuzkoan dagoelako ezezaguna, noraezean heldu eta non nintzen ez nekien Eden distiratsu ttipi hau *Pasages* da espainieraz eta *Le Passage* frantsesez.

Itsasbeherak lehorrean uzten du badiaren erdia eta bereizi egiten du Donostiatik, bera ere mundutik bereiz egonik. Itsasgorak Pasaia osatzen du ostera. Horretarik izena.

Herri honetako biztanleriak ez dauka industria bat besterik, ur lana. Sexu biek banatu dute lana beren indarren arabera. Gizonak ontzia dauka, emazteak badia; gizona arrantzara doa eta jalgi egiten da golkotik, emaztea golkoan gelditzen da eta “pasa” egiten ditu aferaren batek edo interesen batek Donostiatik bertara daramatzatenak. Horretarik txalupariak.

Emakume dohakabe hauek hain bakan daukate pasaiariren bat, non ados jarri behar izan duten. Pasaiari bakoitzeko, elkar jan eta menturaz pasaiaria bera ere janen zuketena. Ezarria dute iragaten ez duten muga bat, eta hautsi egiten ez duten lege bat. Harrigarria da herri hau.

Itsasoak gora egin orduko, bidea urak hartzen duen hartara eramaten dituzte beren txalupak; eta hantxe daude, harkaitzetan, beren kailua iruten, aiduru.

Atzerritar bat azaltzen den aldi oro, laster egiten dute ezarria daukaten mugaraino, eta denak saiatzen dira heldu berriak hauta dezan. Atzerritarrak hautatu egiten du. Hautua egindakoa, isildu egiten dira denak.

Aukeratu duen atzerritarra sakratua da. Daukanarena da, Pasaia ez da garestia. Pobreek bost xentimo ematen dute; burgesek erreal bana; jaunek pezeta erdia; enperadoreek, printzeek eta poetek pezeta.

Bizkitartean txalupak lehorra joa zuen. Hain liluratua nindukan leku hark non pezeta bat jaurti nion presaka Manuelari, arin egin nuen jauzi bazterrera, eta begitarte ezin harrituago batekin ikusiko ninduen espainolak, pentsatzen dut orain, esan zidan guztia ahantzirik alde egiten.

“Ustekabean, liluran bezala, eta tramoigilearen ziztua entzun gabe, dekoratua aldatu egin zen eta ikuskizun miragarri bat agertu zen ene aitzinean. Zeru distiratsu baten gainean, gailurrak nabarmentzen zituen mendi handi berdeen errezel bat; mendi hauen orpoan, etxe lerro bat hertsiki elkarganatu; etxeok denak zuriz, azafraiz, berdez...” (Henry Wilkinson-en irudia) “Noren artean gaude Pasaian gaudelarik? Nekazari artean ote? Jaun handien artean ote? Suitzan edo Gaztelan? Ez ote da bakarra munduan historiak eta naturak, naturak daukan apainenaz eta historiak daukan hitsenaz elkar hartuta herriaren alde bana eraikitzen duten Espainiako baztertxo hau?” (Victor Hugoren irudia)

SUITZAN EDO GAZTELAN?

Lehorreratutakoan, agertu zitzaidan aurreneko karrika hartu nuen: beti nahi zenuen hartara eramaten zaituen jokamolde ezin hobea, bereziki, Pasaia bezala, karrika bakarra duten herrietan.

Goitik beheraino iragan nuen karrika hau. Mendia dauka eskuinean, eta ezkerrean fatxada golkoan duten etxe guztien gibelaldea.

Hemen, ezusteko berria. Ez dago itsas aldetik ikusitako Pasaia bezain fresko eta alegerarik ezer, ez dago mendialdetik ikusitako Pasaia bezain hits eta ilunik ezer.

Horren etxe kriket hauek, horren alegera, horren zuri, horren argi itsasoaren gainean, ez dute deus ikustekorik eskaintzen erromatar itxurako estrata lauzaztatu, oker eta estuan, ez badira pikor-harri belzkarako horma altu batzuk, leiho karratu bakanekin, harkaitzaren isuri hezeek bustiak; eraikuntza bereziko lerro iluna, gainean txano erraldoiez jantziak dauden lehoiek edo gainerliebean landu herkuleek eutsitako armarri

gaitzek soslai egiten dutela. Aitzinetik txaletak dira; gibeletik gazteluak dira.

Milaka galdera egiten nion ene buruari. Zer ote da leku zoragarri hau? Zer esan nahi ote du alderik alde armarriz apainduriko karrika honek? Rodas edo Malta bezalako zaldunen herrietan besterik ez dira ikusten honelako karridak. Oro har, armarriak ez dira egoten bata bestearen ondoan. Isolamendua nahi dute; espazio beharrean daude, handia den oro bezala. Dorre osoa behar da armarri baterako, arrano batek mendi osoa behar duen bezalaxe. Zer esan nahi ote du herri armarridun batek? Txabolak aitzinetik, gazteluak gibeletik, zer esan nahi ote du honek? Itsasoz heltzen zarelarik, bihotza zabaltzen zaizu, ikuspegi bukoliko bat daukazu, hasperen egiten duzu: Oi, arrantzaleen herri gozo, alegera eta sotila! Sartzen zara, eta aitoren semeen etxe artean zaude; Inkisizioaren airea arnasten duzu; karrikaren beste muturrean ikusten duzu zutik Felipe II.aren mamu zurbila.

Noren artean gaude Pasaian gaudelarik? Nekazari artean ote? Jaun handien artean ote? Suitzan edo Gaztelan? Ez ote da bakarra munduan historiak eta naturak, naturak daukan apainenaz eta historiak daukan hitsenaz elkar hartuta herriaren alde bana eraikitzen duten Espainiako baztertxo hau?

* * *

Bi orenen buruan, dena ikusitakoan, edo dena hautemandakoan bederen, txaluparatu egin nintzen oster.

Manuela aiduru neukan. Adostua zegoenez, ene jabe egina zen, berea nintzen, mende nindukan.

Baten batek heldu zidan besotik txalupan sartu behar nuelarik, jiratu egin nintzen. Goizean itsas adarra elkarrekin iraganak ginen gizon seriosa zen, ahantzi egin zait bere potreta egitea, zuzen nadin. Kopa kapelu eroria eta hegal estukoa, joscuretan higaturiko lebita, botoi biko bat lotua, erloju kate lodia kornalinako giltzarekin, nola-halako tratuetarako izena ematen duen sosik gabeko judu aurpegikoa. Hona hemen berriz txalupan izan genuen solasa. Idurika ezazu ahal den gaztelania biziena.

-Eta, zer dugu, frantses jauna?

-Zer dugun, zer!

-Zer diozu?

-Zertaz?

-Ikusi duzu?

-Zer?

-Neurtu duzu?

-Zer?

-Ez al da probintziako luzeena?

-Zer probintziako eta zer luze?

-Sokategia, noski!

-Zer sokategi?

-Ikusi duzun sokategia! Hemengo sokategia!

-Sokategi bat dago hemen?

-A, jaun frantsesa umoreko dago eta adarra jo nahi dit; baina arras ongi daki sokategi bat dagoela hemen, berrehun legoa eginak dituen haren ikusteko!

-Nik? Nehondik ere ez!

-Polita da, ezta? Kordelaz trazatua! Luzea! Bikaina! I bat bezain zuzena!

-Ezta ideiarik ere!

-Tira! –jarraitu zuen gizonak begien artera behatzen zidala- Zinez, jauna, ez duzu ikusi?

-Zer?

-Sokategia!

-Jakin ezazu, jauna –erantzun nion arranditsu-, gorroto berezia diedala gauza luze, bikain eta kordelez trazatuei, eta berrehun legoa eginen nituzkeela sokategi baten ez ikusteagatik!

Halako manera dotorez eta halako doinu sakonez esan nituen ele gogoangarri hauek, non gizona gibeleratu egin zen. Harritu aire batekin behatu zidan, eta, txalupa bazterretik urruntzen zela, eskaileran zeuden txalupariei bizkar harrotze batekin esaten ziena entzun nuen: zoro bat.

Donostiara itzulirik, hurrengo egunean Pasaian jarri nahi nuela ostaturik gaztigatu nuen.

Honek izu handia sortu zuen.

-Zer egin behar duzu han, jauna? Zulo bat da eta. Basamortu bat. Basatien herria. Ostaturik ere ez duzu aurkituko!

-Jotzen dudan aurreneko etxean jarriko naiz. Beti dago etxeren bat, gelaren bat, oheren bat.

-Baina etxeek ez daukate teilaturik, ez aterik geletan, ez koltxoirik oheetan!

-Bitxia izanen da.

-Baina, zer jan behar duzu?

- Dagoena.
- Ogi lizundua, sagardo mindua, olio zaharra eta ahuntz zahagiko ardoa.
- Dastatuko ditut.
- Nolaz, jauna, deliberatua zaude?
- Erabakia daukat.
- Hemen nehor egiten ausartzen ez dena egiten duzu zuk.
- Egiatan? Tentagarria zait.
- Pasaian lo egitera joatea ere! Ez da horrelakorik sekulan ikusi!

Eta aitaren egiten zuten ia.

Ez nuen deus jakin nahi izan, eta hurrengo egunean, itsasbehera zegoela, Pasaiara egin nuen alde.³¹

Orain, ezagutu nahi duzu ondorioa? Hona hemen nora eraman ninduen ene ausardiak.

³¹ Hugok errealitatea aldatzen du, Pasaiak Portu zion lilura indartzeko. Uztailaren hogeita zortzian heldu zen noraezean Pasaiara, eta ez zuen Donostiako ostatua utziko abuztuaren bia arte. Astebete egon zen Pasaian.

“Itsasontzi hauetarik haratago, dorre zahar desegina, *el otro Pasage* esaten dioten etxe multzoa, eta mendi baten gailur hirukoitza.” (Victor Hugoren irudia)

BASATIEN ARTEAN

Idazten dudan une honetan begi bistan daukadana esanez hasiko natzaizu.

Itsasora ematen duen balkoi luze batean nago. Zamau berde batek estalitako mahai karratuan dauzkat paratuak ukondoak. Eskuinean ate-leiho bat daukat, ene gelara ematen duena, izan ere gela bat baitaukat, eta gela honek atea dauka gainera. Ezkerrean badia daukat. Balkoiaren azpian bi ontzi daude lotuak, bata zaharra da eta bertan dabil lanean goizetik gau kantari aritzen den marinel baionar bat. Ene aitzinean, bi kable barru, beste ontzi guztiz berri eta eder bat, Indietara abiatzeko prest. Itsasontzi hauetarik haratago, dorre zahar desegina, *el otro Pasage*³² esaten dioten etxe multzoa, eta mendi baten gailur hirukoitza. Badia osoaren inguruan, muinoek eginiko semizirkulu zabal bat ostertzean galtzen diren izurduretari, Larrun mendiaren mende.

³² Beste Pasaia.

Badia piztu egiten da etengabe joan-jinean dabiltzan txaluparien ontzitxoekin eta oilarraren kantua ematen duten golkoaren mutur batetik besterainoko oihuekin. Eguraldi bikaina egiten du, eta munduko eguzkirik ederrena. Marinel bat entzuten dut kantari, haur batzuk barrez, txalupariak deika, garbitzaileak harria jotzen arroparekin, hemen ohitura den bezala, sakonduretan karranka egiten duten idi gurdiak, mendian marraka egiten duten ahuntzak, ontziolan jotzen duten mailuak, dabiletetan lasaitzen diren kableak, jotzen duen haizea, gora datorren itsasoa. Soinu hori dena musika da, bozkarioz beterik baitago.

Balkoian ageri baldin banaiz, belarra hazi den terraza estu bat ikusten dut behean, urak mailak eskalatzen dizkion itsasorainoko eskailera beltza, aingura zaharra basatzen hondoratua eta arrantzale talde bat, gizon-emazteak, ura belaunetaraino, sareak itsasotik kantari ateratzen.

Azkenik, dena esatea nahi baduzu, terrazan eta eskaileretan Platonek amets egiten zituen dantza misteriotsu guztiak egiten dituzte samaldaka karramarroek geldotasun dotorean.

Turkesatik zafirorainoko urdinaren ñabardura guztiak dauzka zeruak, eta badiak berdearen ñabardura guztiak, esmeraldatik krisoprasaraino.

Badia honek ez du grazia bat bera ere eskas; ixten duen ostertzari beha nagoenean, lakua da; gora datorren mareari banago, itsasoa da.

Zer deritzozu? Honetaraz gero –hala uste dut, eta oroitarazi egin didazu zure gutunean- bi-
daian nabilen hiru aste honetan, huts egin dut leihotikako paisaia igortzeko usaian. Zuzen deza-
dan berehala oker hori. Bordelen, ene leihoak horma handi batera ematen zuen; Baionan, zuhai-
tzak zeuzkan karrika batera; Donostian, arkakusoak akabatzen zituen atso batengana. Pozik ego-
nen zara orain. Banator berehala Pasaiara.

Bizi naizen etxea karrikara ematen duten dotoreenetarikoak da eta ber denboran golkora ematen
duen alegerenetarikoak. Teilatu gainetik harkaitzean eskailera batzuk ikusten ahal ditut, berdetasun
multzotan barrena, eliza zuri zaharreraino igaten dutenak; mendiko lepoari lotutako behia ematen
du elizak, joarea inarosten. Izan ere, Gipuzkoako elizetan agerian ikusten da ezkila teilatu parean
zintzilik, lepokoa ematen duen arkupe moduko batean.

Nagoen etxeak bi solairu eta bi sarrera dauzka. Bitxia eta berezia da nehon berezirik bada, eta
goien gradura eramaten du Pasaiako etxeen ezaugarri bikoitza. Monumentaltasuna arloteriari josi
zaio. Jauregi bati nahasi eta atxiki zaion txabola da.

Lehenengo sarrera Felipe II.aren garaiko zutabedun ataria da, Errenazimentuko artista zoraga-
rriek landua, denborak eta jolasean dabiltzan umeek higatua; euriek, ilargiak eta itsas haizeak
jana. Badakizu hareharri higatua ikusgarriro higatzen dela. Atari hau sarrioaren kolore ederrekoa
da. Armarrria hor dago, baina urteek ezabatu egin dute erredola.

Atariaren eskuinean dagoen ateari bultza, eta ikatza bezalako habe eta ohol beltzez eginiko eskailera topatzen duzu, baldarki moztua, eskoadran ozta paratua, mailek zartatu zabalak erakusten dituztela. Eskaileraren buruan, burdina trinkoko gontzetan irrintzi egiten duen gotorlekuren batego borta astuna etxean sartzeko, erdian leihotxo hagadun bat zabaltzen zaiola.

Gelaitzinekoa karez zurututako korridorea da, amaraun handiz tapizatua, ez baitizut ezer isildu nahi, karrikara ematen duen leihoak argitua. Leiho honen aitzinean mendiaren malkarrak bere harresi erraldoia jasotzen du begi bistatik ezkututzeraino.

Korridoreak bigarren solairuko eskailerara ematen du eta bi ate dauzka; bata, eskuinean, sukaldarakoa, zur trinkoko maila bi igota sartu behar da bertan; bestea, ezkerrean, gela handi batean zabaltzen da lau bazterretan gela ttipi bana duela; honek, berez, lau gelokin eta sukaldearekin, etxearen lehen solairua osatzen du. Gela hauetarik bi ilunak dira eta ez dute egongelarako atea beste irekidurarik. Bertan egiten dute lo, hala ere. Beste bi gelak, egongela bezala, balkoiaren maila berean daude, eta taulatxoek babesturiko beirek hornitzen dituzten ate-leiho berde batzuen bitartez ematen dute bertara. Gela bakoitzak dauka leiho hauetarik bat. Areto nagusiak bi ditu, eta bien artean kontramarko polit bat dauka, beiraztatua, karratu samarra.

Barnealdeak karez zurituak daude, lakura ematen duen fatxada bezala; tarimak, eskailera bezain beltz eta usteldua, parketa ematen du. Mahai biribil bat, kutxaren

batzuk, lastozko aulkiren bat edo beste, hauxe duzu areto nagusiko altzariteria. Batere heraldikoa ez den armarri bat dago Erdiko Ate gainean trakets margotua. Ez dago tximiniarik. Klimak ez du behar. Hormak harrizkoak dira, dorre batenak bezain lodi.

Aretoaren ezkerreko bazterrean dagoen balkoira ematen duen gela daukat hartua. Gainerako gelak etxeke biztanleen ziegak dira, gero ariko natzaizu horietaz.

Bigarren solairua lehenengoaren antzekoa da. Logela batek hartzen du sukaldearen lekua. Bigarren solairuko balkoiak lehenengo solairuko balkoia estaltzen du eta leundu eta zizelkaturiko habetxo zoragarriek alegeratzen duten teilatuaren hegal zabalak babestua dago. Balkoiek berdez margoturiko adreiluzkoak dituzte zoladurak.

Baina iduri luke honek guztiak lur jo behar duela. Paisaia ikusten uzten duten pitzadurak dauzkate hormek; goiko balkoiaren adreiluek beheko balkoia uzten dute ikusten; geletako zoruak okertu egiten dira oinpean.

Lehen solairutik bigarrenera eramaten duen eskailera bitxia da zinez.

“Eskailera osoak egiten du kulunka goitik behera”, esan zuen Régnier-ek ez dakit zein etxerengatik.³³ Eskailera hau ber denboran duzu kulunkaria eta trinkoa. Zur lodiak, ohol lodiak, iltze lodiak dauzka, duela hirurehun urte moldegabe doituak eta josiak; dardara egiten

³³ Marthurin Régnier (1573-1613). Poeta satiriko frantsesa. Adituek diotenez, Hugoren aipamena ez da zehatza.

dute zaharrez eta hala ere badute sendotik eta ikaragarritik. Esangura bikoitz honetan mehatxatzen du. Sabaileihorik ez, goitikako argi printza zehar bat izan ezik. Mailek, nolanhika eta trabesean paratutako oholez baldar konponduak, otsoendako tranpak ematen dute. Hondatua eta bikaina da batean. Lau hatz lodi izanen dituen ate, egituraz sendo, baina herdoilak janak, ixten du eskailera eta isolatzen, behar izanez gero, bigarren solairua lehenengotik. Berriro ere gotorlekua txabolan.

Zer diozu multzo honetaz? Tristea? Higuina? Izutzekoa? Ba ez, zoragarria da.

Hasteko, ez dago hau baino ustekabekoagorik. Nehon ikusten ez den bezalako etxea duzu hau. Etxe zatar batean zaudela uste duzunean, eskultura batek, fresko batek, apaingarri hutsal eta dotore batek ohartarazten dizu jauregi batean zaudela; liluratu egiten zara luxua eta grazia den detaile horrekin, eta sarraila baten marrakaARRANTATUAK pentsarazten dizu kartzela batean zaudela; bazoaz leihora, hona hemen balkoia, hona hemen lakua, Zug-eko edo Lucerna-ko txalet batean zaude.

Horretaz gain, bizileku berezi honetan sartu eta zapart egiten du egunak; distribuzioa alegera, eroso eta orijinala da; itsasoko aire gaziak garbitzen du; eguerdiko eguzki garbiak idortu, berotu eta biziagotzen du. Dena bihurtzen da alegera argi alegera horretan.

Beste edozein tokitan hautsa zikindadea da. Hemen hautsa ez da zahardadea besterik. Atzoko hautsa gorrotagarria da: duela hiru mendeko errautsa ohoragarria da. Zer gehiago, besterik? Arrantzale eta ehiztari herri honetan,

ehiza egiten duen eta sareak zabaltzen dituen armiarmak herritartasun eskubidea dauka, bere etxean dago. Hitz gutxitan, den bezalaxe onartzen dut etxea.

Baina hala ere erratza pasarazi dut ene gelan eta despeditu egin ditut ni baino lehen ostatur zeuden armiarmak.

Etxe honen fisonomia berezia osatzeko esanen dizut ez dudala bertan gizonik ikusi. Lau emazte eta haur bat bizi dira bertan; etxeko anderea, bere bi alabak, Iñazia neskamea, oinutsik dabilen neska euskaldun ederra, eta biloba, hemezortzi hilabeteko ume xarmagarria.

Ostalersa, Basquetz anderea, emakume ezin hobea da, behako espiritual, abegikor, gozo eta alegerakoa; jatorriz hein bat frantsesa, bihotzez osoro frantsesa, biziki ongi egiten du frantsesez. Bere bi alabek espainola eta euskara besterik ez dute egiten.

Helduena gazte mintsu, ezti eta gogoetatsua da. Ttipienak Pepa du izena, neska espainol guztiek bezala. Hogei urte ditu, gorputza lirain, atorra zabal, eskua ongi egina, zangoa ttipi, gauza harrigarria Gipuzkoan, begiak beltz eta handi, adatsa eder. Gauetan balkoian jartzen da ukondo aire triste batean eta amak deitzen duenean biziro jiratzen da. Dagoen adinagatik, neskaren axolagabekeria desagertzen hasia zaio emakumearen malenkoniaren azpian ezkutatzeko, atzemangaitz.

Haurra solairu batetik bestera dabil egun osoan eskaileretan herrestan harat-honat, barre egiten du, etxea bete eta alaitu egiten du bere inozentziaz, gauean marmar

gozoan sumatzen dut lau emakumeek kantari lo harrarazten diotelarik.

Esan dizut etxeak beste sarrera bat zeukala. Kalostrarik gabeko eskailera da, harlandu handiek osatua, karrikatik sukaldera doana, eta handik hostajearen artean mendian gora egiten duten beste eskailera batzuekin egiten du bat.

Etxea trabeska dago kokatua karrikan, Chenonceaux-eko gaztelua bezala Cher-en gainean, eta haren azpitik pasatzen da karrika zubi luzeko arku moduko bati esker, estua, bobedatua eta iluna; kriseilu batek argitzen du gauzez eta, hobitxo batean, hamabosgarren mendeko burdin hesi batek estaliriko argizulo baten ondoan, kandela bedeinkatu bat dago piztuta, pasatzen diren marinela koitaduei eskainia, honako hitzez:

VNA LIMOSNA PARA
ALVMBRAR AL ST.º CT.º
D. BVEN BIAJE
ANO 1756³⁴

Orain ezagutzen duzu etxea, ezagutzen dituzu biztanleak, esan dizut non dagoen ene gela; baina ez dizut esan nolakoa den. Idurika itzazu lau horma zuri, lastozko bi aulki, tripode baten gaineko jofaina, iltze batean zintzilikatua dagoen ume kapelu bat lorez eta abalorioz apaindua, apal bat ukendu pote batzuekin eta Jean-Jacques Rousseau-ren hiru ale solte, oso oihal ederreko

³⁴ Erremusina bat Bidaia Oneko Kristo Santua argitzeko. 1756 urtea.

Baldakino zaharra duen ohea, marmola baino gogorragoko bi koltxoirekin eta zoragarri margoturiko burualdearekin, marko dotoreko ispilua horman eskegia eta ixten ez den sotoko atea. Horrelakoa da ene gela. Gainera itzazu aipatu dizkizudan ate-leihoak eta balkoian dagoen mahaia. Ene ohetik itsasoa eta mendia ikusten ditut.

Ikusten duzunez, Donostiako jende zibilizatuaren iragarpenak gorabehera, lortu dut ostatu hartzea Pasaiako arloteen artean.

Lortu ote dut hemen bizitzea? Egizu kontu:

Balkoitik mugitzen ez den tapaki berdeko ene mahaiaren gainean, Pepa xarmagarria, egunsentian itzarrita, badator, hamarrak aldera, zapi zuri bat jartzera; gero goiz hartan bertan badiako harkaitzetan harrapatutako ostrak ekartzen dizkit, arkume saihets bi, lupia frijitua, arrain gozoa zinez, arrautza azukrezatuak platerean, txokolate krema bat, madariak eta melokotoiak, oso kafe oneko katilu bat eta baso bete Malaga arnoa. Sagarnoa ere edaten dut, ezin baitut ohitu ahuntz zahagiko ardoari. Horixe dut bazkari.

Hona hemen ene afaria, arratsaldeko zazpitan, badian barrena edo mendian ibili ondoren. Zopa bikain bat, eltzekoa gantzez eta garbantuz baina azafrairik eta piperrik gabe, legatz xerra batzuk oliotan frijituak, oilasko errea, errekatxoan bildutako berro entsalada, ilarrak arrautza egoiarekin, arto pastela esnetan eta azahar lorearekin, nektarinak, marrubiak eta baso bete Malaga.

Pepitak, ene inguruan harat-honat dabilela, menditar honen apetitua kitzikatzen duten gauza hauek denak zerbitzaten dizkidan bitartean, eguzkia gorde egiten da, ilargia ageri da, arrantzontzi bat jalgi da badiatik, ozeanoaren eta mendiaren ikuskizun guztiak eskaintzen zaizkit zeruaren ikuskizun guztiakin batera. Espainieraz eta euskaraz egiten dut Pepitarekin. Asmatutako istorio sinestezinak kontatzen dizkiot aztiez, nik sinetsiko banitu bezala, eta berak irri egiten du eta ene ustekeria horiek burutik kentzen saiatu; txalupariak entzuten ditut urrunean kantari, eta ez naiz konturatzen portzelana lozazkoa dela eta zilarra eztaizuzkoa.

Honek guztiak bost libera kentzen dit egunean.

Donostian, ziurrenik, goseak hila eta basatiok jana uste naute.

Gainera, hemen ostatu hartzea baino errazagorik ez nuen izan. Manuelari galdetu nion ea eza gutzen zuenetz etxeren bat Pasaian egun batzuk emateko. Hastean, kapritxoak harritu egin zuen hein bat Manuela; baina nik berritu egin nion eskaera eta nagoen lekura ekarri ninduen. Basquetz andere prestuak irribarrez hartu ninduen; eskatu zidan prezioa ordaindu nion. Biziki erraza da, ikusten duzunez.

PASAIAKO PORTUA

Pasaiako badia, alde orotarik eta haize orotarik babestua, portu bikaina izanen litzateke. Napoleonek bazeukan halako asmoa, eta ingeniari ona zenez, obratu behar ziren lanen aurre-planoa ere egin zeukan. Dartsenak baditu zenbait legoa perimetroan, eta itsasora ematen duen bokalea hain da estua non aldiko ontzi bat baino gehiago ezin den pasa. Bokale hau bera ere, harkaitzezko gailur altu biren artean gordea, hiru dartsena ttipitan dago banatua, gotortzen eta defendatzen errazak diren ataka batzuek bereziak.

Hamaseigarren mendean, Caracasko Konpainiak, gerora Filipinetakoari lotua, Pasaian zeuzkan bere portu frankoa eta bere biltegiak. Hark jaso zuen, badia babesteko, egun apaingarri dagoen dorrea. Dorre hau suntsitu egin zuten duela urte batzuk karlistek.

Karlistek, esan dezadan bidenabar, arrasto tristeak utzi zituzten Pasaian. Etxe bat baino gehiago erre eta hondatu zuten. Ni nagoena ohointzan hartua izan zen bakarrik, “Nolako adur ona!” esaten zidan ostalersak eskuak bilduz.

Ingelesak ere hartu zuten Pasaia garai desberdinetan, eta duela gutxi ere bai.

Kostako puntu goietan zenbait gotorleku eraiki zituzten, egun suntsituak. Biztanleek erre zituzten, eta, dena esan behar denez, sute horiek San Juan suen pareko izan ziren. Gipuzkoan ez dituzte ingelesak maite. Lord Wellington-en 1813ko lehorreratzea portugesekin orotzapen hitsa da euskaldunendako. Menditar hauen bihotzek mendi hauen antzeko oihartzun luze eta sakonak dituzte eta Donostiako bonbardaketak oraindik ere ozentzen du beren baitan.

Ingelesak ez zuten Pasaian utzi OLD COLD bi silabak beste aztarnarik, merkatariren baten errotulua arauz, oraindik ere ikusgarri direnak, Felipe II.aren potretaren ondoan, bizi naizen etxeko horman.

Orain Pasaiako portua hutsa dago abantzu. Arrantzaleen ontziak baino ez dira ageri. Armadore baionar batzuek hemen egiten dituzte beren ontziak, Bilbon edo Santanderren uzten dizkieten izen espainolekin; Espainiarekiko komertziorako ontziak dira, bertan eginak ez izatera frankiziarik ukanen ez luketenak. Horretarako balio du Pasaiak. Eta horra hor zergatik instalatu zen, 1812an uste dut, ontziolan dagoen sokategi handia, nik hainbeste mesprezatu nuena. Sokategi hau pasaera luze bat da, eta sokategi ederra. Bisitatu egin bainuen azkenean. Ikusten duzu zibilizatzen ari naizela.

Portua maldaren erdian dagoen harkaitz batean jasotako gaztelu ttipi batek bakarrik gerizatzen du militariki, bokalearen bigarren artikulazioaren sarreran.

Gotorleku hau ezin konta ahala inurrik eta zenbait soldaduk defendatua dago.

Pasaiak, gainera, berez gerizatuko luke bere burua. Naturak harrigarriro gotortu du. Portuko sarrera beldur ematekoa da. Urtero galtzen da ontziren bat bertan. Iaz, berrogeita hamar mila libera balio zuten oholez beteriko ontzi bat harrapatuta trabeska paratu zuen enbatak estuneko bigarren dartsenan sartzen zelarik, eta portura heltzeko ahalegin hartan itsas nibeletik hirurogeitaka oinera jaurti zuen uhin batek harkaitzetan gora. Ez zen berriro erori. Harkaitzaren ertzek hartu zuten eta alde guztietarik sartu zitzaizkion. Egun, haizean dardara egiten duen burdinazko gurutze batek markatzen du ontzi handi hau iltzatua gelditu zen tokia.

“Badia honek ez du grazia bat bera ere eskas; ixten duen ostertzari beha nagoenean, lakua da; gora datorren marriari banago, itsasoa da.” (G. Etxanizen irudia)

PASAIAKO BIZIMODUA

Jakin nahi duzu zer bizimodu egiten dudan hemen? Leioa ixten ez dudanez eta atea ere ezin denez zarratu, goizean goiz iratzartzen naute eguzkiaren distirak eta umearen parlantzuak. Ez daukat oilarraren kukurrukurik, baina txaluparien kantua daukat, gauza bera azken finean. Mareak gora egiten badu, jaikitakoan balkoitik ikusten ditut golkoaren bestaldera doazela lasterrean.

Bina doaz beti ontziko, batetik ontziaren zamagatik eta bestetik senar eta maitaleen zeloengatik. Horrek bikoteak osatzen ditu, eta bikote guztiek dute izena: *La Catalana y su madre*³⁵, Maria Juana eta Maria Andres, Pepa eta Pepita, Lagunak, eta Evaristak. Evaristak oso politak dira; Donostiako goarnizioko ofizialek haiekin nahi dute, baina zuhurrak dira neskak, paseatu egiten dituzte ofizialak; beti daramate lore sortaren bat

³⁵ Kataluniarra eta bere ama.

kapelu ziraztatuan eta, arraunera makurtzen direnean, plegu handiko eta oihal beltzeko gona labur-
rrak agerian uzten ditu ongi egindako aztala eta ongi jantzitako oina. Galtzerdiak dituzten baka-
netarikoak dira, txaluparien aristokrazia.

Pepa eta Pepita, ahizpak, Evaristak baino are politagoak dira.

Ez dago badia hau bezain gauza bizi eta garbirik goizean. Hiru elizen kanpaiak entzuten ditut
ene atzean joka; eguzkiak areagotu egiten ditu dorre zaharreko zimurrak. Txalupa bakoitzak uz-
ten du bere ubera badian, eta esan liteke izei bana daramatela atoian, adarrak oro zilar.

Bazkaldu aitzin ibilaldi bat egiten dut herri edo hiri honetan, ez baitakit zer izen eman leku be-
rezi honi. Beti aurkitzen dut bezperan ikusia ez nuen zerbait. Karrika zeharkatu eta etxe artean
bide egiten duten harkaitzetan eginiko mandioak dira; estalpe hauetan badago egur hornidurarik:
gaztaina morkotsak bezala lazturiko zuhaitz erroak, itsasontzi zatiak, ontzien armazoiak. Bere
etxe aitzinean iruten ari den emakumea izanen da; haria bere eskutik jalgi eta etxeke teilaturaino
igotzen da, eta handik behera erortzen berriz, muturrean dakarrela irulearen aitzinean dilindatzen
den ardatza. Pertsiana oriental batzuk izanen dira, leiho gotikoetan, eta begitarte freskoak zur
beltzeko sare sarrietan. Neskato politak izanen dira, oinutsik eta giroak dagoeneko brontzeatuak,
dantza eta kanta:

*Gentil muchacha,
Toma a la derecha.
Hombre de nada,
Toma a la izquierda.*

honela itzuliko nukeena erraz alde, espirituaren arabera zuzenago letraren arabera baino:

Neska panpina,
Hartzan eskuina.
Gizon okerra,
Hartzak ezkerre.³⁶

Lana, dantza eta kanta egiten da Pasaian. Batzuek lan egiten dute, anitzek dantza eta orok kanta.

Bazter primitibo eta larreko guztietan bezala, Pasaian neskek eta atsoak daude bakarrik, erran nahi baita, loreak eta...-bila ezazue Ronsard-enean, alafede, eskas den elea.³⁷ Anderea esaten dena, hogeita bost urtetik berrogei bitartean zabaltzen den arrosa bikain hori, zibilizazio landua-ren emaitza findua eta bitxia da, zibilizazio doto-

³⁶. “Fille adroite, / prends la droite. / Homme gauche, / prends la gauche”.

³⁷. Pierre de Rosard (1524-1585), poeta frantsesa (“Poeten printzea, printzeen poeta), La Pléiade izeneko poeta taldeko buru, maitasun poema ugari idatzi zituen. Hemen “eskas den eslea”, beharbada, “vieille accroupie” dateke, hots, “atso mokortua”, *Helena*ren *Hamalaudunak* deitu poema bildumako *Quand vous serez bien vieille* hamalaudun ezagunean emana. Hartan gaztetasunaren eta zahardadearen arteko kontrastea egiten du Ronsard-ek, honela finitzeko: “Har itzazu engoitik bizitzaren arrosak” (*Cueillez dès aujourd’hui les roses de la vie*).

rearena, eta hirietan bakarrik kausi liteke. Emaztea osatzeko kultura behar da; gizartearen espiritua esaten diogun loragintza hori, eta barka ezazu hitza.

Gizartearen espiriturik ez dagoenean, ez duzu anderea sortzen ahal. Ines ukanen duzu, Gertrudis ukanen duzu; baina ez duzu Elmira sortzen ahalko.³⁸

Pasaian beti ikusiko dituzu neskak lixiba egiten eta arropa idortzen: neskek erreketan garbitzen dute, arropak balkoietan idortzen dira. Honek begia eta beharria alegeratzen ditu.

Balkoi hauek munduko gauzarik bitxienak dira hartu eta aztertzeko. Ezin asmatuko zenuke ser daukan, aire librean idortzen dauden arropaz gain, Pasaiako balkoi batek.

Kalotrak berak, gehienetan antzinakoa, hau da, bihurritua edo zizelkatua, merezi du aztertzea. Gero, balkoiaren sabaian –balkoi orok baitauka goiko balkoia edo teilatuaren hegala den sabairen bat- sabai honetan, diot, kulunka egiten dute arropak, sareek, soka bilduek, esponjek, zurezko kaiolan dagoen perikitoak eta krabelin gorritz beteriko lorontzi dilindatuek, orpoetan karramarro haginak nahasten zaizkien lorategi ttipi eskegiek, Semiramis gogora ekarri.³⁹ Horman, leiho artean eske-

³⁸. Molière-ren *L'École des femmes* antzerkiko pertsonaia sotila da Ines; Gertrudis berriz Hamlet-en ama da Shakespeare-ren izen bereko antzerkian. Elmira emakume zuhur eta intelagentearen eredia da Molière-ren *Tartuffe* antzerkian, oso pertsonaia garatua beste bien aldean.

³⁹. Semiramis gizon baten eta jainkosa baten alaba izan zen, Ninus erregearen emaztea. Alargundu zenean, Babiloniako lorategi eskegiak eraikiarazi zituen.

girik, gurutze moduan txirikordaturiko betibiziak, pildak, jaka zahar doratuak, banderak, zapiak; gero, zertarako balio duten ezin hautematen ahal den hainbat gauza fantastiko, apaingarri gisa daudenak: lauki batean loturiko oholak, aro moduko budinaria, pandero hautsi bat. Ikatzezko marrazkiren batzuek horma eta ukondoak kalostran jarrita barre egiten duen neska batek osatzen dute balkoiko altzariteria.

Pasaia zaharrear, badiaz haraindian, hamabosgarren mendeko etxe bat ikusi nuen, eta balkoia, Normandiako oilategi bat baino beteago, haritzezko plantxa handitan landuriko zaldun zurrun biren soslaien artean zeukan uztartua.

Heldu nintzen egunean, ene etorrera ospatzeko bezala, gonazpiko zahar batek, kolore guztietako pilda desberdinez osatua, bandera baten gisa egiten zuen igeri balkoi hauetarik batean. Oparotasun distiratsu hau haizepe puzten da ezin esan ahalako harrotasun eta arrandi batean. Ez nuen egundaino ikusi arlekin-beroki egokiagorik.

Eguerdian, eguzkiak itzal horizontaleko xingola zabalak erorarazten ditu teilape eta balkoipe guztietan, fatxaden zuritasuna handituz, eta honenbestez, herri hau urrundik ikusten baduzu mendien hondo berde eta ilunaren gainean, bizitza argitsu eta ezohiko batean bizi dela ematen du.

Plaza, batez ere, distiragarria da. Plaza bat baitauka Pasaiak, Espaniako plaza guztiak bezala *Plaza de la Constitución* izenekoa. Izen parlamentari eta ekaitzezko

hau gorabehera, giro miragarri batean dirdirutzen du Pasaiaiko plazak. Plaza hau ez da karrikaren luzapena besterik, zabaldua eta itsasoari irekia. Inguratzen duten etxe altuerarik batzuk arkupe erraldoietan daude altxatuak. Erdiko etxeak herriaren armari koloreztatua dauka fatxadan. Ezkaratz guztiak dendak dira.

Igande batzuetan herriak zezenketak antolatzen ditu eta plaza hau dauka anfiteatrotzat, parapetoaren luzean zoruan iltzaturiko zutabeetarako lotuneek erakusten duten bezala. Zezen plaza edo Konstituzio plaza, ez dago deus, berriro diotsut, alegeragorik, bitxiagorik eta libertigarriagorik bistarako. Pasaia animatzen duen bizitza ezin ugariagoa plaza honetan biltzen da eta bertan jotzen du goia. *Batelerak* bazter batean daude zutik, *majoak* eta marinela bestean; umeez zili-purdi, gainka, oinez, balantza, oihu eta jolas egiten dute espaloi guztietan; perikitoaren kolore guztiak hedatzen dituzte fatxadek: horirik biziena, berderik freskoena, gorririk minena. Gelak eta dendak argilun liluragarritz beteriko leizeak dira, non isla eta distira artean ikusten ahal diren kapritxoko altzari mota guztiak, Espanian bakarrik topatzen diren kutxak, Pasaian bakarrik topatzen diren ispiluak. Begitarte atsegin, prestu eta maitekorrak posten dira ate guztietan.

Arestian *Pasaia Zaharra* aipatu dizut, *El otro Pasaje* ere esaten zaiona. Bi Pasaia baitaude egia esan, bata gaztea eta beste zaharra. Gazteak hirurehun urte ditu. Ni nagoena da. Lehenengo goiz batean txalupa hartu eta zaharra ikusi nahi izan nuen. Nolabait ere hegoaldeko Bacharach bat duzu. Han, Rhin-eko Bacharach-en bezala,

“arrotza beti arrotz”.⁴⁰ Ume argalek eta atso zurbilek harriturik ikusten zaituzte pasatzen. Bere etxe aitzinen gelditua nintzelarik, oiuhu egin zidan batek:

*-Hijo, dibuja eso. Viejas cosas, bellas cosas.*⁴¹

Etxea, izan ere, hamahirugarren mendeko txabola ederra baitzen, ikusten ahal den hondatuena eta suntsituena. Pasaia zaharreko karrika, arabiar karrika bat da zinez, etxe zurituak, trinkoak, desberdinak, ozta dituztela zenbait zulo. Teilaturik ez balego, Tetuan-en egonen ginateke. Huntza bururik buru doan karrika honen zorua lauzaz egina da, sugearen bizkarrak bezala uhinak egiten dituzten harrizko ezkata zabalak.

Elizak hondatzen du multzoa. Modernoa da eta azken mendean berregina. Pezeta erdi batez irekiarazi dut. Organoaren gaineko inskripzio batek ematen du data, arkitekturan ere sobera idatzia dagoena bestalde:

MANVEL MARTIN
CARRERE ME HIZO
ANO 1774⁴²

Eliza hau zatarra da; Pasaia Zaharra triste da. Ez dago adostugabeagorik: ttipiaren tristura da zatarkeria. Pasaia zaharrak handitasuna dauka ordea.

⁴⁰ Rhin inguruan ibilia zen Hugo 1839an, bidaia hartan idatzirikoak ditu aipu. 1842an argitaratu zuen *Le Rhin*.

⁴¹ Marraz ezak hori, seme. Gauza zaharrak, gauza ederrak.

⁴² Manuel Martin Carrere-k egin ninduen, 1774 urtea.

Ikusten duzu, adiskide, goizeko ibilaldi ez dela lanik gabekoa. Promenada amaiturik, etxera hartzen dut, bazkaldu eta banoa harkaitzetan goiti. Goiza karrikari ematen diot, eta arratsaldea mendiari.

“Pasaiako mendiek bi erakargarri berezi dauzkate enetako. Lehena da itsasora ematen dutela, zeinak une oro dituen bere ibar, golko, muino eta goialdeak. Bigarrena da hareharrizkoak direla.” (Victor Hugoren irudia)

HAREHARRIAREN TEORIA

Malkarrean ongi eginiko eta harkaitzetako bejetazio zakarrarekin nahasiriko eskailera perpendikular batetik igotzen naiz mendira, hagitz maila altu eta estuetan goiti. Eskailera baten burura heldu zarelarik, beste bat topatzen duzu. Bata besteari gaineratzen zaizkio eta zerurantz doaz, Piranesi-ren egitura ezinezko eta misteriotsuetan ikusten ditugun eskailera izugarri horiek bezala.⁴³ Alabaina, Piranesi-ren mugagabea hondoratzen dira eta Pasaia eskailerak badute mugarik. Eskailera hauetako baten buruan nagoelarik, erlaitzen bat aurkitzen dut, ahuntz bideren bat, uharrek eta euriek eginiko arroila gisakoren batek ertz berria ematen diola mendiari. Handik harat abiatzen naiz, herriko teilatuen gainean edo tximinian behera lapikoren bateraino erorita *olla podrida*-ren eltzekari bihurtzeko arriskuan.⁴⁴

⁴³. Giovanni Battista Piranesi (1720-1778), artista eta teoriko italiar handia. Irudien handiko plano eta koadro fantastikoak egin zituen Antzinako Erromaren arkitekturan oinarrituta.

⁴⁴. *Pot-pourri* frantsesaren itzulpena, gisatu arrunta Espanian.

Mendien gailurrak mundu ezezagunak zaizkigu. Han sortu, garatu eta loratzen da natura errefuxiatu bat, bereiz bizi dena. Han egiten dute bikote, himeneo misteriotsu batean bezala, zakkarral eta harrigarriak, basatiak eta baketsuak. Gizona urrun dauka, natura lasai dago. Halako konfiantza batek, giza urratsak entzuten dituen ordokietan ezezaguna, aldatu eta sosegatzen du abereen sena. Ez da zelaietako natura urduri eta apala. Tximeletak ez du ihes egiten; matxinsaltoa harrapa zenezake; muskerrak, txoria hostoetara bezala bere harrietara, zulotik jalgi eta behatu egiten dizu ondotik zoazenean. Haizearen beste zaratarik ez dago, belarrarena beste mugimendurik ez behean eta hodeiarena goian. Mendian arina goititu egiten da, bihotza osatu: pentsamenduak ere hartzen du bake sakon honetarik. Oso hurbil atzeman uste izaten du batek Jehovaharen begia zabalik.

Pasaiako mendiek bi erakargarri berezi dauzkate enetako. Lehena da itsasora ematen dutela, zeinak une oro egiten dituen bere ibar, golko, muino eta goialdeak. Bigarrena da hareharrikoak direla. Hareharria mesprezatu samarra dute geologoek, uste dut erresuma mineraleko parasi-toen artean sailkatzen dutela. Eni dagokionez, munta handian daukat hareharria.

Zuk badakizu, adiskide, espiritu amestiendako naturaren alderdi guztiek, baita ikusi batean elkarrengandik alduenak ere, harmonia sekretu mordo bat dutela lokarri: ikuslariak hautematen dituen sorreraren hari ezkutuak eta, nolabait esatearren, izatearen erroak berak direnak, sare askagaitz bat egiten dutela, bizitza bakarra bizitzeko sabia bakarrak elikatua, bakarra ugaritazunean. Ho-

nela, enetako, badago harmonia bat haritzaren eta pikor-harriaren artean, eta batek maila bejatean, besteak mineralaren alorrean, lehoiak eta arranoak abereetan bezalako ideiak sortzen dituzte: larderia, handitasuna, indarra, bikaintasuna. Badago beste harmonia bat, are gordeagoa, baina ber gisan nabarmena ene aburuz, zumarraren eta hareharriaren artean.

Hareharria izan litekeen harririk libertigarriena eta bitxien modelatua da. Zuhaitzetan zumarra dena duzu harkaitzetan. Ez dago hartuko ez duen molderik, ez dago lortuko ez duen kapritxorik, ez dago eginen ez duen ametsik; begitarte guztiak ditu, espantu guztiak egiten ditu. Iduri luke arima anitz batek bizi duela. Barka iezadazu halako konparazionea, gai honetaz.

Pasaiaren drama handian, hareharriak paper aldakorra jokatzen du; zenbaitetan handi eta zurrin, bestetan irrigarri; borrokari bat bezala makurtzen da; klown bat bezala uzkuratzen da; esponja, budina, mendi-denda, txabola, zuhaitz enbor izan liteke; belar artean ageri da lurraren arradan muino ttipi lehoitu berdexkan eta lo hartutako artaldea ematen du; irri egiten duten aurpegiak ditu, behatu egiten duten begiak, iratzea bazkatu eta haginka egin behar dutela irudi luketen matelezurrak; lurretik zakarki jalgitzen den erraldoi baten ukabilaz hartzen ditu sasiak. Antzinateak, alegia osoak maite zituen hark, hareharriaz egin behar zukeen Proteo-ren estatua.⁴⁵

⁴⁵. Itsasoko Jainkoa, Neptunoren artaldea zaintzen zuena. Sari gisa, Neptunok iragana, oraina eta geroa ezagutzeko ahalmena eman zion. Eguerdietan Proteo bazterrera etortzen zen atsedean hartzera, eta itxura desberdinetan metamorfutzen zen, basurdez, zuhaitzez, harkaitzez, etsaien tronpatzeko.

Zumarrez zipriztinduriko ordokia ez da nehoiz aspergarri, hareharrizko mendi bat beti dago ezustekoz eta kitzikagarriz betea. Natura hilak bizi dela iduri duen aldi oro, zirrara bereziz hunkitzen gaitu. Batez ere arratsaldez hasten da forma hartzen, ilunabarren tenore kezkarri horretan, mamu egiten den sorreraren alderdi gori. Itxuraldatze ilun eta misteriotsua.

Oharteman dituzu, arratsapalean, Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinenean jarraika agerrarazten eta ezkutarazten dituen zumar guztien soslai izugarriak? Batzuek aharrausi egiten dute, besteak zerurantz okertzen dira eta lasgarri oihukatzen duen ahoa zabaltzen dute. Badaude ilunpeetako algara anker eta higuin batez irri egiten dutenak, haizeak inarrostean ditu; atzerantz egiten dute kondenuatuaren bihurrikatzeetan, edo bata besteagana makurtuta ahapetik esaten dizkiote elkarri, beren hosto-belarri handietan, pasatzean ez dakit zer silaba ulergaitz baizik entzuten ez dituzun hitzak. Badaude sekulako bekainak, sudur barregarriak, ilaje lastuak, perruka itzelak dituztenak; horrek ez dio beren errealitate fantastikoari bel-durgarri eta ilunez daukanetik deus kentzen; karikaturak dira, baina mamuak dira; batzuk irri-egingarriak dira, denak dira izugarriak. Amestiak gauaren larba ezezagun eta posibleak ikusi uste ditu bidearen ertzean paraturik lerro mehatxagarri eta elbarritan, pasatzerakoan makurtzen zaizkiola.

Galde eginen nioke ene buruari ez ote diren hauek ilunpeetan bizi diren izakiak, iluntasunez eginak krokodiloa harriz egina dagoen bezala eta kolibria airez eta eguzkiz egina dagoen bezala.

Pentsalari guztiak dira amesti; egoera urtsu eta flotagarrian dagoen pentsamendua da amets giroa. Ez dago espiritu handi bakar bat ere naturatik sortzen diren ikustateek obsesionatu, liluratu, izutu edo gutienez harritu ez dutenik. Batzuk mintzatu izan dira horietaz eta, nolabait esatearren, beren lanetan utzi dizkigute, bertan bizi daitezen beren estiloaren bizitza hilezkorrean, “gauaren ilunpean” ikuskatuak zituzten forma ezhoiko eta iheskorrak, izekin gabeko gauzak. *Visa sub obscurum noctis*.⁴⁶ Zizeronek *imagines* esaten die, Kasiok *spectra*, Kintilianok *figurae*, Lukreziok *effigies*, Virgiliok *simulacra*, Karlomagnok *masca*. Shakespeare-renean, Hamlet montzo zaio horietaz Horazio-ri. Gassendi arduratuta dago haietaz eta Lagrange-k amets egiten zuen haiekin Lukrezio itzuli eta Gassendi-ri buruz hausnar egin ondoren.⁴⁷

Zurekin egiten dut gogoeta ahotsa gorarik, ene adiskidea. Ideia batek beste batera narama, Naramala. Zu ona eta maitagarria eta bihozbera zara. Ohitua zaude ene abiadari, eta uzten didazu gogoeta brida laxoan egiten. Hona bada hareharritik urrun samartua, itxuraz berderen. Banator harzara.

⁴⁶. Virgiliori zor dio esaldi hau, eta Zesar hil ondoren ikusi uzte zituzten mamuak ditu aipu.

⁴⁷. Pierre Gassendi (1592-1655), Kopernikoren eta Galileoren jarraitzaile frantsesa, astronomian eta fisikan ikerketak egin izan zituen. Epikuroren filosofia tesiaren oinarritu zuen bere filosofia. Joseph Louis Lagrange (1749-1827), matematikari frantsesa, mekanika teorikoan eta analitikoan aitzinamendu handiak ekarri zituen.

Hareharriak erakusten dituen alderdiek, egiten dituen milaka gauzaren kopia bereziek, bade egunaren argitasu-

nak ezin xahutuzko, ezin sunsituzko berezitasuna. Hemen, Pasaian, euriek, itsasoak eta haizeak landu eta eskulturatuta, ezin konta ahala harrizko biztanle mutu, geldi, eternal, ia izugarri dago populatua bat, badiaren sarreran jesarria, harkaitz helezin batean, besoak zabalik, zeinak, zerua urdin ala trumoitsu egon, itsasoa bedeinkatzen edo marinelak gaztigatzen ari dela iduri duen. Badaude txori mokoak duten ipotxak, giza itxurako munstroak, batak irri eta besteak negar egiten duten aurpegi birekin, zerutik oso hurbil, ordoki soildu batean, hodeietan, han non deusek ez duen ez irri ez negar eragiten. Badaude erraldoiaren atalak, *disjecti membra gigantis*; hemen belauna, han enborra edo omoplatoa, haratago burua. Badago idolo sabelandi bat, idi muturra du eta lepokoa, eta beso lodi motz pare bi, atzean sasi handiak inarosten direla eulitakoak antzo. Badago igel erraldoi bat muino goi baten tontorrean kokoriko, likenek tanta hori eta zurbilez jaspeztatua, aho higuin bat zabalik eta ozeanoaren gainean ekaitz ufaka iduri.

Ene zumarraren teoria, ene hareharriaren teoria.⁴⁸

⁴⁸. Hugok orrialde eta erdi uzten du zuri, bere teoria hau garatzeko. Honen ondoren biribiltzeko asmoa zeukan, nonbait, geroago "Ibilian harturiko oharrak" bezala ageriko direnak.

JAIZKIBEL MENDIAN

Mendiko paseoa
Ibilian harturiko oharrak

Abuztuak 3, arratsaldeko hirurak

Badian nabilela, deboiladura batzuk ikusi ditut mendiaren tontorrean. Hondakin hauek ez daukate nehondik ere antzinako aurrien itxura. Hondatze moderno eta ziurrenik berria izanen da. Ingelesek Pasaian egon zirenean, karlistek eta kristinoek azken gerratean, gotorlekuak eraiki zituzten mendietan; gero lur jo duten gotorleku horietarik bar da noski. Banoa ikustera.

Igotzen dut mendia. Ikusten denez badago xenda bat, baina ez dut ezagutzen. Noraezean noa oteen artean. Igoera luzea da, oso pattarra, aski dorpea. Aldapa erdian jarri egin naiz hareharrarian.

Ostertza goratu egin da, itsasoa ageri da han behean. Malkarrean alitzen diren ahuntzen zintzarriak iristen di-

ra enegana. Kakalardo berde bat ikusten dut urre mantxaz betea ene zangoaren ondoan.

Mendiari goiti ekiten diot ostera. Tontorra makurtu eta biribildu egiten da, orain errazagoa zait.

Heldu naiz puskailetara. HARRIZKO tximinia bat, keak belztua, harresian gora.

Harlandu mordo galanta lurrean barreiatua. Fosoak zikinkeriaz betea. Gaintitzen ditut harriak. Teila eta adreilu hautsiekin nahasiak daude. Goi-ordokiaren gainean nago.

Kanoiak mugitzeko bidea, lauzaztua, berria guztiz, atzo egina esate baterako.

Belarra hazi da, hala ere, lauzen tartetean.

Sartzen naiz lehen etxe hondatuan. Harrizko gela karratua. Horma zakar zabalak. Hiru tronera Pasaiako etxeetarantz. Erdian harri eta adreiluzko tximinia gaitza, kanoia dena txirtxilatua, itxura bitxikoa. Gela batzuk adreiluzkoak, kubikoak eta zirkularrak; ziurrenik ere kanoiaren balak goritzeko labea. Barrua zabor pila bat baino ez da. Ez da giza hotsik heltzen honaino. Hai-zea eta itsasoa besterik ez. Euria hasi du. Harriek firrilaka egiten dute ene zangoen pean. Nekez jalgi naiz.

Bigarren gela karratua, hamarna oinekoa norabide guztietan, aurrekoaren antzekoa. Hiru tronera herriari beha. Habe bat kanoi-zulo batean, usteldua; zati bat hartu dut. Beste bi gela leiho-rik gabe, bata keak arras belztua. Planoa egiten dut, hormaren goialdean bizkarrez jarrita. Zur errea hondakinekin batera. Teilaturik ez daukate hiru gelok, aztarrenik ere ez.

Sartzen naiz bigarren etxe hondatuan. Gela handi bat, ez hain betea hondakinez, atzealdean tximinia ttipi bat daukala. Ondoan, gela ttipiago bat, biak ere karratuak. Dena dago kendua, apurtua, txirtxilatua. Intsektu higuin batzuek egiten dute ihes makilaren muturrarekin jasotzeko ditudan harrien azpietarik. Euria ugariago. Lanbroak itsas-lehorrak estaltzen ditu. Jaitsi egin behar dut.

Hondakinen gainera igotzera deliberatzen naiz. Eraikuntzaren hirugarren gorputza izan behar zuenaren harri meta. Gibelean, hamabi oin karratuko beratze landu bat, zur erre zatiz betea. Fosoak baratzea eta hiru hondakinak inguratzen ditu. Goian-behean ari du. Iluntasun bat sortu da. Lanbroa gero eta lodiago. Dena suntsitu zait inguruan. Hondakinak besterik ez ditut ikuste, lau-

zaz eginiko bidea eta zabalgunea bat. Ez dut bidea aurkitzen ahalko eta galdu eginen naiz malkarretan. Gerta ala gerta!

Euriak izaturiko tximeleta eder bat dator ene ondoan babestera, harri baten gainean. Enbata bario beldur gutiako dit niri. Noraezean jaitzi naiz.

Atertu du, badator argia. Badia ttipia ikusi dut. Uraren gainean doazen arrantzaleen lau arrauneko txalupaz bete dago. Nagoen gainetik, txalupatxoek beteriko badiak ur-armiarmaz beteriko putzua ematen du.

Abuztuak 4, arratsaldeko ordu bi eta erdiak, mendian

Natura soildua. Haize gogorra. Pasaiako kaboek ongi estaturiko badia ttipia. Badia erdizka ixten duen eta itsasbeherak agerian utzi duen harkaitz baten kontra jotzen

du zakar itsasoak. Han, itsasandia ilun eta irakiten dago. Berun zerua. Eguzkia eta ilunpea uhinetan barna dabilta.

Urrunean, Hondarribiko arrantzako txalupa bat eginahalean ari da, bela biak haize alde, badian sartzearen. Branka portuari buruz. Uhinek zakar astintzen dute aurretik atzerantz; uhin bakoitzak jaso eta amildu egiten du urrezko malkarrean, berriro ere puztu eta txalupa jasotzeko.

Duela gutxi, ahuntz-zain batek honela zioztan mendian: *Iguraldi gaiztoa*.⁴⁹ Hona hemen txalupa; kasik iritsi da itsasoak bitsez beteak dituen harkaitzetara. Mastak okertu egiten dira, ikaran daude belak. Pasako da. Pasa da. Ene ondoan ttirritta bat kantari belarretan.

Arratsaldeko hiruretan, malkarraren aldapan

Harkaitz biluziak hildakoen buru antzo. Landatzen dut makila lurrean eta zutik idazten dut. Loreak nonahi, eta mila koloreko matxinsaltoak, eta munduko tximeletarik apainenak. Barezka sumatzen ditut han behean, malkarrean, ikusten ez ditudan neska gazte batzuk.

Aitzinean ditudan harkaitzetarik batek gizakiaren soslaia dauka. Marraztu egiten dut. Masailak jana ematen du, begiak eta belarriak bezala, eta esanen nuke tronparen barnea erakusten digula. Harkaitz honen aitzinean eta gorago, beste harkaitz batek dogo bat itxuratzen du. Itsasandiarri zaunka ari balitz bezala.

Arratsaldeko bostetan

⁴⁹. Euskaraz jatorrizkoan; hala dira hemendik aitzina letra etzanez eta halamoduzko ortografiaz emandako pasarteak.

Harkaitz baten muturrean nago, kabo baten ertzean. Malkadura eskalatuz inguratu dut arroka. Zapata-zola erraldoien arrastoak ematen duten zulo bitxiz betea dago harkaitza, eta haie-tan eman ditut esku-zangoak. Amildegian kanporantz jalgitzen den puska bizkardun batera heldu naiz horrela. Bertan jesarri naiz; zangoak hutsean zintzilik.

Itsasoa, itsasoa bakarrik. Ikuskizun bikain eta betierakoa! Zuri bihurtzen da han behean, harkaitz beltzetan. Ostertza lainotsu dago, eguzkiak erre egiten banau ere. Haize handia oraindik. Antxeta bat dotore amildegian barrena, ene begi bistatik ehun tuasara.

Azantza jarraitua eta sakona da. Noizean behin zalapartak entzuten dira tanpez, eroriko baldar eta urrunen antzekoak, zer edo zerk lur joko balu bezala; gero giza samalda baten marrumaren itxura dute; jendetza bat hizketan ari balitz bezala.

Zilarrezko xingola bat, mehea eta distiratsua, begi bistatik galdu arte itsasbazterrean bihurka. Ene atzean, harkaitz handi zut batek bere habia babesten duen arranoaren itxura hartzen du, atzapar biak mendian tinkatuak. Ozeanoaren eskultura ilun eta ederra.

Arratsaldeko seieta

Mendi luze baten tontorrean nago, egun iritsi naizen gailurrik altuenean. Hemen ere esku-belaunez eskalatu behar izan dut.

Ostertz neurrigabe bat ikusten dut. Mendi guztiak Orreagaraino. Bilboko itsaso guztia ezkerrean, Baionako itsaso guztia eskuinean. Oilarraren gandor itxura duen mendiaren azken ertza-
ren gainean idazten dut hau. Harkaitz honen gainean sakon grabatu dira hiru letra ezkerrean:

L.R.H.

Eta bi letra eskuinean:

W.H.⁵⁰

Harkaitz honen inguruan triangelu antzeko ordoki ttipi bat dago landa lehorrez betea eta foso antzeko lakar batek bildua. Hala ere txilar arrosa polita ikusten dut pitzadura batean. Hartu egin dut.

Arratsaldeko zazpitan

Atzokoa baino anitez ere handiagoko gaztelua. Milaka intsektuk poxelatzen naute. Harresietan nago foso eskalatu ondoren. Hartziko karratu handia lurrezko hesi batek goitua, oraindik ere zutik han eta hemen, belarrak estalia. Lau euskal artzain, txapela eta jaka gorriz, fosoko itzalean jo. Zakur zuri handi bat dago lo harresiaren goialdean.

⁵⁰. Juliette Drouet-ek jolas bat egin zuen, Victor Hugoren oharra garbira pasatzerakoan, biko ubea V hutsa bihurtuz, Victor Hugo alegia. Edizio eta itzulpen askotan ageri den aldaketa da.

Gainerako gelak: batean, tximinia arrastoak. Biltegi handiaren erdian, beste ttipiago bat, bazterra keak errea eta belztua. Itxitura ttipi honen gibelean, lau mailako eskailera batek eramaten duen terraza.

Artzainetarik bat iratzarri egin da eta hurbildu egin zait. Oso zurrun esan diot:

*-Jainkoa berorrekin.*⁵¹

Badoa harrituta. Besteak iratzartzera joan da, harritatearik ikusten ditut nola egiten daten so manera bitxian. Urduri ote daude? Mehatxuzko behakoak ote dira? Ez dakit, biak batera menturaz. Ez dut makila beste armarik. Zakurra ere itzarri da, eta aztarrika ari da.

Belar berdeko alfonbra zoragarri batek, larruzko beroki bat bezain ugaria, milioi bat margarita edo kamamila loreak apaindua, betetzen ditu puskailek azken zokoetaraino.

Terrazara igo behar dut.

Bertan nago. Adreilu lehorrez eginiko harresiaren goialdean nago jesarririk. Ene gibelean itsasoa, ene aitzinean mendi zirku bat. Ezkerrean, urrunean, atzo bisitatu nuen gaztelua ikusten dut hodeiak ukitzen dituen gailur baten gainean; eskuinean, urrunago, Wellington gotorlekua eta farolaren dorre zaharra Donostiatik haratago. Sakondura batean, Loiolako ibarra, beste batean Hernaniko ibarra.

Artzainetarik bat hurbildu zait; beha gelditu natzaio, tinko. Ihes egin du oihuka:

⁵¹. *Jaincua beguvrec requin*, jatorrizkoan.

*-Ahuatlakouata! Ahuatlakouata!*⁵²

Jaitsi egin behar dut.

Jaitsierakoan

Atzo ikusitako gogorazten didan ikuskizuna. Ur triangelu ttipi bat mendi zirkulu baten erdian, ur honetan zorri batzuk. Ur hau badia da; zorri hauek itsasontziak dira.

Oraindik ere bidea utzi gabe, aldaparen erdian, gaztelua, bere garita eta bere zentinelak iraganda, latsarria aurkitu dut.

Garbitegi hau izan litekeen leizerik zoragarriena da. Haitz handi batek, ene buruaz goiti luzatzen den mendiaren ertz biziaz kobazulo natural baten itxurakoa osatu du han. Kobazulo honek bobedako zirrikitu guztietarik tantaz tanta erortzen den ur ugaria isurtzen du. Perlazko euria esanen nuke. Halako berdaje aberats eta sarriak tapizatzen du kobazuloaren sarrera, non berdetasuneko atari baten antza duen. Berdetasun hau oro lorez betea dago. Adarren eta hostoen artean belar printza luze batek akueduktu mikroskopiko bat osatu du, eta bere luzetasun osoa neurtzen duen ur hari bati egiten dio bide, muturrean erortzeko, kobazuloaren hondo ilunaren gainean birliduz, zilarrezko haritxo baten gisa. Parapeto batek babesturiko ur gardenezko geruza batek bete du kobazu-

⁵². Zaila da antz ematen zein euskal hitz egon litezkeen halako oihuaren azpian.

lo osoa. Zimentatu gabeko harriek irtenbidea ematen diote harrabilen artean ihes egiten duen urari.

Xenda parapetotik urrun samar doa, berro zelai zabal eta fresko batek aldentua. Ura ikusten da hostoen artetik eta iturriaren marmarra entzuten da belarren azpitik. Jira eginda Pasaiaiko badia ikusten dugu, eta ostertzean itsaso zabala.

Hiru emaztek egiten dute gobada latsarrian, belaunetaraino uretan. Ezin esan kolpatzen dutenik, jipoitu egiten dute. Beren manera da bortizki jipoitzea, eskuan duten arroparekin, parapetoko harria. Bata zaharra da. Beste biak gazteak dira. Gelditu dira une batez, behatzen didate, eta berriro ere lanari ekiten diote.

Isiltasun baten ondoren:

-Jauna –esaten dit zaharrak frantses kaskarrean-, menditik zatoz?

Halamoduzko euskaran erantzuten diot:

-Bay, videā nequesa.

Neska biek zeharrez behartzen diote elkarri, eta barrez hasten dira.

Bata bilohoria da, beltzarana bestea. Bilohoria da gazteena, politena. Gibelean isats bakarrean bilduriko adatek, hemen ohitura den bezala, kolore gorrixka bat hartzen dute kokotean, aire librean utzi diren zeta puskak bezala, kolorea higituta. Gainera, lixibagile gaztea oso apain dago bere gona gorri eta gerruntze urdinarekin, euskaldunen kolore hautak.

Espainieraz egin diet hurbilduta:

-Nola duzu izena?
-Maria Juana, jauna, zure zerbitzurako.
-Zer adin duzu?
-Hamazazpi urte.
-Bertakoa zara?
-Bai, jauna.
-Burges alaba?
-Ez jauna, *batelera* naiz.⁵³
-*Batelera!* Eta ez zaude itsasoan?
-Itsasbehera dago, eta gainera, lixiba egin behar da.

Honetan neska animatu egin da, eta bere gisa jarraitu du:

-Ni bazterrean nengoen, jauna, zu heldu zinelarik. Ikusi zintudan. Aurrean Pepa hautatu zenuen pasatzeko, baina zu Leon jaunarekin zeundenez, eta Manuela katalana beroren txaluparia denez, Manuelarekin pasa zinen. Pepa gaixoa! Baina zuk txanpon bat eman zenion. Oroitzen zara –esan du lagunagana jiratuz-, oroitzen zara, Maria Andres? Jaunak Pepa hautatu zuen lehenik.

-Eta zergatik hautatu ote nuen bera?

Neskak bere begi handi inozenteekin behatu dit, eta batere zalantzarik gabe erantzun:

-Politena delako.

Gero gobada jotzeari ekin diote berriz. Zaharrak bere lana amaitu du, eta alde egiterakoan honela esan dit:

-*Muchacha*-k⁵⁴ arrazoi du, jauna.

⁵³. Txaluparia.

⁵⁴. Neskak.

Eta hau esanez lurrean utzi du otarrea eta xenda bazterrean jesarri da, begitxo grisak, zimurren arteko zirrikitu bi, neskei eta niri emanez.

-Nahi duzu laguntzea otarrea buruan jartzen?

-Milesker, jauna! Nehork ez zidan lagundu atzo, nehork ez dit lagunduko bihar; hobe da egun ere nehork ez laguntzea.

-Nola esaten diozue belar honi espainieraz? –galdetu dut krexua ene makilaren puntaz erakutsita.

-*Berros*, jauna-

-Eta euskaraz?

Idazteko oroitzen ez naizen hitz luze bat erantzun dit.⁵⁵
Neskengana itzuli naiz.

-Maria Juana, nola du izena zure *querido*-ak?⁵⁶

-Ez daukat.

-Eta Maria Andresek?

-Maria Andresek badauka bat.

Gazteak deblauki esan du hau, zalantzarik gabe, galderak durduzatu eta arrapostuak herabetu duenik eman gabe.

-Nola du izena Maria Andresen *querido*-ak?

-O, arrantzalea da, *mozo*⁵⁷ pobre bat. Oso jeloskorra da. Beha ezazu, hantxe dago, badian; hemendik ikusten da bere txalupan.

⁵⁵. “Iturri-belarra” esan ote zioten garbitzaileek?

⁵⁶. Maitaleak, galaiak.

⁵⁷. Mutil.

Honetan atsoak jarraitu du:

-Eta beharrik ez zaituzte ikusten! Gozoa jarriko litzateke Maria Andres ikusiko balu jaun honekin kalakan eta irriz! Frantses batekin hizketan, ene Jesus! Hobe zenuke ipar eta hegoko, eki eta mendebaldeko lau deabruekin!

Soldadu bar pasa da; eskuaz agurtu ditut gazteak; irriño batez itzuli didate agurra, eta bidean aitzina jarraitu dut.

Abuztuak 6, arratsaldeko hirurak

Oilarra ari zen urrunean kantari eta bidean aitzina jarraitu dut. Idi gurdiak harkaitzean landutako bide gogorretik heldu naiz hona, sakondura harrigarriro basati bateraino. Mendiko al-dapa gainean txilardegi artean ageri diren harkaitzek buru erraldoiak idurikatzen dituzte denek; hildakoen buruak daude, soslai egiptoarrak, belarretan barre egiten duten sileno bizardunak, aieru hitseko zaldun tristeak. Dena dago, trufaz irri egiten duen Odry barne, sasitzazko ileorde baten azpian.⁵⁸

Bi mendien arteko hausturan, eskuinean, itsas adar bat ikusten dut, hiru herri, bi hondakin, bata komentu batena, ibar miragarri bat eta hodeiek estalitako gailurkate altu bat.

Lezo herriak, hiruretan hurbilenean, eliza gotiko eder bat dauka mole single eta dotore batekin; gotorleku bat dela esan liteke. Jainkoa bera ere gaztelutan bizi da herri

⁵⁸. Jacques-Charles Odry (1781-1853), fartsetako aktorea.

Honetan, ostertzeko bazter batean itzali orduko beste batean pizten baita hemen gerra.

Arratsaldeko bost eta erdiak

Handitasun gaitzekoa da hemen ikuskizuna. Ostertzak bi zati ditu, itsasoa eta mendia. Begi bistatik eskutatzeraino luzatzen da ene aitzinean itsasbazterra. Txilarrak soropiltzen duen gerizpe erraldoi baten harresi erraldoiaren itxura eta angelua dauka. Angelu bera daukan amildegi batek osatzen du kontrarresia.

Lehorreko aldetik itsasok haserre jo eta hausten du baluarte hau, eskoadra batekin egina dela esanen litzatekeen parapeto bat paratu diola baturak ertz horretan. Baluarte hantzen eta hemen ozeanoan bloke bakarrean erortzen diren labar handitan dago eroria. Irudika itzazu laurogei oin luze dituzten arbelak. Nagoen lekuan, itsas kolpea haserre da; kaltea, izugarria. Alimaleko bre-txa bat ireki da.

Bretxa hau menderatzen duen harkaitz irten baten azken muturrean nago jesarria. Iratze baso batek betetzen du sakonduraren gaina. Haritz ipotx mordo bat, itsas haizeak belarraren pa-rean segatzen duena, hazi da ene inguruan. Hosto gorri polit bat bildu dut.

Arrantzaleen txalupa ikusezinak igerian dabilta ene azpiko amildegian; berdelek, lupiek eta sardinek distira egiten dute txalupen hondoan eguzkitan, izar metak bezala. Hodeiek brontze distira ematen diote itsasoari.

*Itsasoan nago kuluskan,
beharria utzia kulunkan:
haizeak uhinetan marruma,
entzuten dudala, ametsetan,
marinelen kantore urruna.⁵⁹*

Arratsaldeko zazpiak

Eguzkia gorde da. Jaitsi eginen naiz. Ume bat kantari mendian. Bide estu baten buruan ikusten dut badoala, sei behi aitzina xaxatuz. Ardiak alatzen diren zelai gorrixka baten gainean trenkatzen dira mendiko gailurreriaren itzal zabalak.

Itsasoak krisoprasaren berdea dauka. Ilunagotu egin da. Zerua itzali da.

⁵⁹. “Au bord des mers quand on sommeille, / tout caresse et berce l’oreille; / c’est le bruit du vent sur les flots; / c’est le bruit des flots sur les grèves; / on entend, à travers ses rêves, / les chants lointains des matelots.” Pasages 6 août.

MUNDUKO NESKARIK EDERRENAK

Arratsean, dantzak, irriak, gitarrak. Bet-betan joare bat pasa da era ahots batek: *para las almas del purgatorio*.⁶⁰ Jendeak oro belauniko.

Belus gorriko armiarma ttipiak likenean lasterka.

Ereinetza basa-mahastia.

Arranoa hodeietan bezala bizi naiz.

Emazteak barrika handiei atxikiak, arratsean, atari ilunetan, burdinazko kriseilu zaharrek.

⁶⁰. Purgatorioko arimendako.

Eguzkiak jotako olaxten islak urrezko ezkatat marrazten ditu ontzien kasko ilunetan, burdinazko kriseilu zaharrekin.

Arrantzontziak piltzarrez eginiko triangeluko bela ttipi goiti paratuekin, ateka hauetan haize hartzeko.

Igandean dantza. Udalak ordaindutako musika. Farfailez jantzitako eta itxura tristeko bi soinulari ari dira arrabita eta panderoa jotzen. Beti kadentzia bera. Hartzen dantza. Musika honetan dantzatzen dira zoriontasun serio eta

sakonean munduko neskarik ederrenak. Pepa eta Pepita, bi batelerak, ahizpak. Ederrak. Biek ere badute zerbait zohar eta nobleko. Helduenak garbitasuna ordezkatzeko du, gazteenak birjintasuna. Iduri luke madona bat dantzan ari diana batekin bekoz beko.

Baserritar ederrak. Arrantzale ederrak. Beltzaranak. Erreak. Sendoak., begiramendua eta samurtasuna ekartzen diete keinuetan neska arantz hauei.

Alabaina, dantza honek antza dauka gure dantza debekatuekin. Umeek ere dantza egiten dute. Bi urteko muttikoak lasai arraunean, Pariseko udaltzainak izutzeko maneran.

Baserritar hauek beren jantzi pintoreskoekin egiten dute dantzan, alkandora zuri, gerriko gorri, bonet urdin, jakak lepoan, eder, noble, grazios, kasik antzinako.

Iratxo hauek, masail zabal apaleko tripandiek, lebitaz eta kopako kapeluz, mespretxuzko aire batean behatzen diete. Burgesak dira.

Nolanahiko bertso hauek eguna nintzen:

*Gaskoinako golkoa,
zeinen golko ederra*

Bikote baten liskarra entzun dut. Honela burutu dut laukoa:

*Andrea okerra,
senarra zoroa.⁶¹*

LEZO

Abuztuak 8

Baditu egun batzuk oharteman dudala menditik ikusten den itxura berezi eta tristeko herri bat. Herri honen izena, oker ez banago, Lezo da.⁶² Pasaiaiko itsas adarraren muturrean dago,

⁶¹. “Le golfe de Gascogne / estu n golfe charmant. / La femme ment, / l emari cogne.”

⁶². “Leso”, jatorrizkoan.

atzera egitean mareak lehorrean uzten duen leku batean. Atzo, eguzkiak gordetzera egin zuenez, bertara daraman gurdibidea hartu nuen aldapa erdian.

Bide hau oso gogorra da tarteka, zati batzuk hare-lauzaz eta marmol-lauzaz daude zorutuak, baita, han-hemenka, lauzek erortzen egiten dituzten eskailera pattar batzuen antzeko ez ere. Gainerakoan, txilar bioletek eta ote horiek orain lorezko geruza handi batez estaltzen dituzten bi mendiren maldetan barrena doa.

Harriz egindako baserri bat utzi nuen eskuinean, ate ojibalekoa, gero eskerrean ataka basa bat, non uhar bat ageri baitzen behiala etxea izandako puskailen artean era-

rik bortiz eta bitxienean. Begi bakarreko zubitxo batetik iragan nuen uhar hau, eta beste mendiaren aldapa igan nuen.

Kantari ari ziren emakume batzuk; putzuan mainatzen ziren ume batzuk; eraikuntza bat jasotzen ari ziren Baionatik jindako langile frantses batzuk iragan ziren sakan batetik, armazoi luze bat zeramatela zazpi laguneren artean. Idien joarea entzun nuen, eta zuhaitzen ikara; ikusmira alegeratasun bikainekoa zen; haizeak dena bizitzen zuen, eguzkiak dena urreztatzen zuen.

Etxe deboilatu bat aurkitu nuen eskuinean, beste deboiladura bat ezkerrean, beste bat gero, hiru edo lau aitzinago, sagarrondo baso ttipi baten ondoan, eta ezustean herritik urrats gutira aurkitu nintzen.

Oker erabiltzen dut hemen deboiladura hitza; txabola hitza baino ez nuke erabili behar. “Deboilatu” hauek teilaturik gabeko lau hormak osatuak dira gehienetan, zenbait leihorekin, gehienak ere adreiluzko tabike batek tapiatuak eta tronera bihurtuak, sute arrastoekin alde guztietarik, eta barnean behiren bat edo ahuntz pare bat lurreko belarra edo hormako huntza lasai bazkatzten ari.

Txabola hauek azken gerraren lanak dira.

Herrian sartzen nintzela, atso eskale serio batek ehun urtekoa bai, pareta baten bazterretik zutitu eta erremusina eskatu zidan babes-keinu ikusgarri batekin. Bost zentimo eman nizkion mende honi.

Karrika ilun batean sartu nintzen, etze beltz handiek inguratua, denak harrizkoak, antzinako langintza erakusten zuten burdina trinkozko balkoidunak batzuk, beste-

ak berriz gaitzeko armarriak zeuzkatenak gainerliebez fatxadaren erdian landuak.

Aurpegi zurbilak, tanpez esnatuak iduri, ageri ziren pasatzen nintzen atarietan. Leiho gehienek zeuzkaten amaraun sareak gortinen orde. Leiho estu eta luze horietarik etxe barneetara egiten nuen so, eta hilobiarenak ematen zuten barneak ikusten nituen.

Halako batean aurpegi bana azaldu zuten leihoek, baina leihoa bera baino zaharragoa. Aurpegi goibel eta hildako hauek guztiak ikaratu, makurtu egin ziren marmarka, argi biziagi batek itsutuak bezala. Ene etorrerak lanean jarria zuen mamuen inurritegi hau. Larba eta lamien herri batean nengoela iduritzen zitzaidan, eta errainu hauek guztiek herraz eta izu behatzen zioten bizidunari.

Sartu nintzen karrika okerra zen, eta bi solairutan moztua, nolabait esatearren. Eskuineko aldea mendiari atxikitzen zitzaion, ezkerreko aldea ibarrean amiltzen zen.

Hamabosgarren mendeko anitz etxe zegoen, ate handi bikoak; lehenengo atearen arkuko giltzarrian landua zegoen, erarik delikatu eta dotoreenean, etxearen zenbakia zeinu erlijiosoren batekin nahasia, gurutzeren bat, usoren bat, lili-hostoren bat; bigarrenaren arkuko giltzarrian biztanlearen lanbideko ezaugarriak zeuden zizelkatuak, gurpil bat gurdigile batenean, aizkora bat egurketariarenean. Herri honetan denak zeukan handitasun ilun eta berezia. Errotulu bat azpierzbean ageriko zitzaizun.

Miseria sakon bat zen, baina ez miseria arrunta. Harlanduzko etxeetako miseria zen; Louvrek bezalako burdina landuzko balkoiak eta Eskorialak bezalako marmol lami-

nazko armarriak zeuzkan miseria. Pilda zaharretan jantzitako zaldunen herria pikor-harrizko txabola hauetan.

Ez nuen begitarte gazterik ikusten, ume zarpatsu batzuk izan ezik; jarraitu egiten zidaten urrunetik eta, itzultzen nintzenean, gibelera egiten zuten ihes egin gabe, beldurturiko otso gazteek bezala.

Bi etxetik batean bazen deboiladuraren bat, gehienez huntzak lana eta sasiak tratatua, batzuetan antzinakoa, berria maizago.

Hormen lientzoen gainetik pasatuz abandodotua zirudien etxe batera iritsi nintzen. Karrika izandakora ematen zuen fatxada osoak jaberik gabeko etxe baten antz goibela seukan: ateak ongi itxiak, nonahi leiho itxiak, Luis XIII.aren garaiko zurajeko kontraleiho berdeak, leiho ongi itxiek. Harresi ttipi bat iragan nuen etxe honen ingurua egiteko, eta zabalik aurkitu nuen beste alde-tik, baina ikaratzeko maneran goitik beheraino zabalik, fatxada osoaren zapartatzeaz. Artadi zapaldu batean zegoen pieza bakarrean, eta fatxada honen gainean ibili nintzen zoladura baten gainean bezala, bai eta barnean sartu ere.

Nolako ondikoa! Lau solairuren erraiak ikusi nituen behako batean. Eskailera erreza izan zen; gela guztietara ematen zuen hutsune handi bat baino ez zen eskaileraren kutxa. Hormek, gorrixka eta higuin, su-garren arrastoak ageri zituzten bazter guztietan.

Beheko solairua baino ez nuen ikusi ahal, eskailerarik ezaz.

Etxe hau arras handia eta arras luzea zen; zutabe batzuek bakarrik eusten zioten eta suak meheturiko zenbait

habek. Neure buru gainean ikusten nituen dilindan eta dardarati; noiz edo noiz harriren bat, adreiluren bat, puskailaren bat eteten sen nihauren oinetara erori, bizitza ilun baten dunbotsa sortuz etze hil honetan. Hirugarren solairuan, ohol erdi erre bat eskegia gelditua zen iltze batetik; hai-zeak astindu egiten zuen eta tristeki eragiten zion intziri. Geletan kontraleihoak ikusten nituen sarrailaz gogor itxiak. Paper zati batzuk zeuden hormetan. Gela bat arrosa kolorez margotua zen. Sukaldean, orain iritsi ezin zen leku batean, tximinia altuaren gona zurian, haurren baten eskuak ikatzez margoturiko itsasontzi ttipi bat oharteman nuen.

Mendeetako deboiladura batetik, arima handitua eta zabaldua jalgi ohi da bat. Atzoko deboiladura batetik bihotza ilundurik jalgitzen zara. Antzinako deboiladuran idurikatzen dut jabea. Mamua ez da horren tristea.

“Pikor-harrizko eliza luze, erraldoi, ilun batek menderatzen du herri zakar hau. Urrundik ez da eliza, bloke bat da. Hurbildutakoan, horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau ojiba, hamabosgarren mendekoak, absidean. “

VOLTAIRE LEZOKO ELIZAN

Pikor-harrizko eliza luze, erraldoi, ilun batek menderatzen du herri zakar hau.

Urrundik ez da eliza, bloke bat da. Hurbildutakoan, horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau ojiba, hamabosgarren mendekoak, absidean. Harrizko kutxa honi argitasun sobera ematen ziolakoan, tapiatu egin dira ojibak, eta idi begi estu bat besterik ez dute utzi bakoitzaren erdian. Murrua gorrixka da, likenak jana.

Angelu zuzenean ebakitako horma handi bat da fatxada, leihorik gabe, banorik gabe, eta portikoa beste zabaldurarik eskaintzen ez diola bistari, baxua eta tristea bestalde, bi zutabe higitarekin eta frontoi biluzi batekin. Harri beltzezko arranke luze bik seinalatzen dute fatxada hau sakaila batez goitik beheraino. Eskuinean dorre luze eta estu bat dauka, eraikuntzaren errematetik ozta goititzen dena.

Zazpi edo zortzi atso itsusi zeuden kokoriko eta tarteka jarriak elizaren inguruan. Ez dakit konbinaketa halabeharrez egina zen, baina atso hauetarik bakoitzak teila-

tuaren ertzetik lepoa luzatzen zuten gargola banari egokituak ematen zuen. Zerurantz behatzen zuten aldizka, eta gargolekin behako samurrak zituztela ematen zuen.

Eskale alproja hauetako batek gainerakoek baino behako tinko eta ankerragoa eskaini zidan. Beragana joan nintzen, harritu nuen itxuraz, gero eliza erakutsi nion, eta esan:

-Giltza.

Hitz honek “gakoa” esan nahi du euskaraz. Hitz miragarri honek eta bere mantelinan bota nuen pezeta erdiak beratura, honela esan zidan gargola bizidunak, zutiturik:

-Bai.

Hau da, baitez. Elizaren ostean ezkutatu zitzaidan.

Bakarrik gelditu nintzen atari aitzinean. Gainerako atso guztiak zutituak ziren eta bazter batean bilduta so egiten zidaten.

Berehala azaldu zen alde egina, giltza eskuan, elizako atea zabaldu zuen, eta sartu egin nintzen. Orena izan ote zen, heltzeko zegoen gaua? Ene espirituaren makurdura edo eraikuntza-ren beraren isuriren bat? Nehoiz ez nuen nabaritu eliza honetan sartu nintzenean bezalako zirrara izotzgarria.

Nabe altua zen, kanpotik bezain biluzia barrutik, iluna, hotza, miserablea eta handia, egun ilunabartuaren isla ubel eta lurkarek doi argitua.

Hondoan, tabernakuluaren atzean, harrizko oholtza baten gainean, gaitzeko errezel bat luzatzen zen lurretik

Bobedaraino, estatuaz eta azpierzpiebez zamatua, orain urreztatua, orain herdoildua, hirurogei oineko superfizie batean mailakatuz Inkisizioaren santu bikainak, Felipe II.aren arkitektura tragiko eta malurazkoarekin nahasiak. Aldare honek, iluntasun honetan ikuskaturik, bazuen halako krudel eta izugarritzko ez dakit zer bat.

Aldarearen aurrean eskegitako latorri trokelatuzko lanpara handi gustu oneko batean, atsoak pizturiko metxa bat ari zen distiraka. Argi honek ez zion iluntasunari ezer kentzen, eta bai gaineratzen zer edo zer lastuari.

Harri landuzko kalostra batek mugaturiko mailadi zabal batetik iristen da apaiza aldare honetara. Pieza hau ikusgarri landua dago Karlos V.aren gustu goibel eta dotorearekin; Frantzian Frantzisko I.aren estiloa eta Ingalaterran berriz Tudor estiloa esaten duten horretan.

Igan nuen eskailera hau, eta handik eliza behatu nuen, zinez hits eta handiosa.

Ez dakit non zegoen atsoa, zoko ilunen batean.

Atea erdirekia gelditua zen, eta urrunean nabari nuen arratsak harturiko mendia, zeru ilundua, itsas adarra, hareatza zabal lehorra oren hartan; lehen planoan, txabola bat zen deboiladura; bigarren planoan, alkate etxea zen deboiladura bat; hondoan komentua zen deboiladura bat. Etxola hondatua, etxe hondatua, komentu hondatua, argiak ihes egiten dion zeru hori, itsasoak uzten duen hondartza hori, ez ote dira bada sinbolo oso bat? Iduritzen zitzaidan eliza honen sakondurarik ez nuela ikusten nolanhiko paisaia, baizik eta Espainiaren begitartea.

Une hartan hots berezi bat heldu zen eneganaino. Entzuten nuena ezin sinetsirik gelditu nintzen adi, eta haboro entzun nuen. Gauza harrigarria eta herri honetan gertatzen ari den iraultza zeinen sakona den adierazten duena: urrundik jarraika ekarriak nituen umeak, eliza zabalik ikusi-rik, atarian jarrita zeuden ahots gorarik kantari, eskarnioz eta algara handitan parodiatuz meza eta bezperak, aldareko apeza eta koruko txantreak.

Esanen ote dizut, adiskide? Une hartan azkenik gabeko urriki bat sortu zitzaidan ume dohakabe hauengana, zibilizazioa eman baino lehen kendu baitzaie erlijioa.

Eta, umeen ondoren, laido hau isilean pairatu behar duen Ofizio Santuko nabe honengana atxiki zaio ene urrikia. Nolako zigorra! Nolako jazargoa! Ume batzuk trufatzen ari, hainbeste urtez gizonei ikara eman dienaz! Oi, harriek barnerik baldin badute, erakundeen arima eraikitzen dituen etxeei txertatzen baldin bazaie, nolako kolera hits eta ezin esan ahalakoak ikaratu behar zituen orduan oinarrietaraino horma biluzi eta gogor hauek! Eta egizu kontu, San Inazioaren jaioterritik hurbil, Loiola ibarretik bi legoara!⁶³ Umeak kantari ari ziren heinean, nabea ilunagotu egiten zen, eta elizan egiten ari zen *ilunpe* honek beraien fedean egiten ari zen ilunpearen iduria ematen zuen.

Santo Domingo-ren eliza tristea, uste zenuen Satanas bentzutua zenuela, eta Voltaire-k bentzutu zaitu! Hona he-

⁶³. Urrunago, noski. Baina Hugoren konparazioak hurbiltasuna behar zuen, kontrastea indartzeko.

men, bada, dena deboiladura huts dela Espainian! Etxea, gizonaren bizilekua, suntsitua da alorretan; erlijioa, arimaren bizilekua, suntsitua da bihotzetan.

Gautua zuen elizatik jalgi nintzenean. Leiho eta ate guztiak itxiak zeuden herrian. Argirik ez, biztanlerik ez- esanen nuke hilobi hauek itxi egin zirela ostera eta espektro hauek lo hartuak zeudela berrio.

Alta, distira nabaritu nuen plaza batean. Bertara hartu nuen. Kontraleiho batzuk erdirekiak zeuden ezkaratz batean eta beheko solairuan atso bat ikusi nuen kokoriko, geldirik, berriki zurituko horma batean bizkarrez emana. Iltze batean jositako lanparak argitzen zuen buruz goiti, hilobiko lanpararen itxura duen Espainiako lanpara zaharrak. Lady Macbeth ametsetan, ikusi uste izan nuen.

Lanpara honen distirak honako inskripzioa irakurtzen lagundu zidan aitzineko etxean:

*POSADA
LHABIT.*⁶⁴

Zernahi espero nuen, han ostatu bat aurkitzea ez beste.

Ilargia Jaizkibel mendiaren ostean ageri zen herritik jalgi nintzelarik. Erraza izan zitzaidan bidea berriro atzematea. Hala ere, leku bitxi hartara eginiko bisitak eman aldardean zaila zitzaidan oren batzuk lehenengo liluratu ninduten inguruak ezagutzea. Paisaia hau, eguzkitan hain alegera, hitsa bihurtua zen ilargipean. Gauaren bakardadeak ostertza betetzen zuen.

⁶⁴. L. Ostatua. Gelak.

“Herrian santzen nintzela, atso eskale serio batek, ehun urtekoa bai, pareta baten bazterretik zutitu eta erremusina eskatu zidan babes-keinu ikusgarri batekin. Bost zentimo eman nizkion mende honi.” (Victor Hugoren irudia)

GAUEKOAK

Pasaiara hurbiltzen ari nintzen. Bidazti batzuk azaltzen hasiak ziren.

Ilargi zuritan ebakitzen zen *castillo*⁶⁵ baten puskailetan neukan finkatua behekoa: mendi aski altu baten gailurrean, ibar mehar, basa eta huts baten hondoan.

Deboiladura hartako gailurrean agertu berria zen argi batek arranguratzen ninduen. Argi horrek bazeukan berezitik eta adigaitzetik zerbait. Lehenengo, distiratzen zuen lekuagatik; gero, distiratzen zuen moduagatik. Itsasargi baten gisa egiten zuen, pizturik, gero itzalirik, ostera pizturik eta tanpez izar handi baten dirdira jaurtiz. Zer ote zen su hura, eta zer esan nahi ote zuen?

Zubia dagoen atakara heldu nintzelarik, sokategiaren sarreran egon ohi zen emate eskale bat, eta ia egunero erremusina ematen niona, karrika iragaten ari zen bere txabolara joateko aldaparen erdian. Ikusi ninduen jiratu,

⁶⁵. Gaztelu.

Zeinatu eta, argia erakutsirik, esan zidan: *los demonios*.⁶⁶
Beste aldera pasa nintzen.

Doi bat urrunago, Pasaiara jaisten den galtzada pattarraren sarreran, gizonezko bat zegoen zutik marmol gorri baten gainean, arrantzale bat, eta atsoak bezala, argiari so zegoen.

-*Qué es eso?*⁶⁷ –esan nion, hurbildurik.

Gizonezkoan ez zuen behakoa argitik aldendu, eta hala erantzun zidan:
-*Contrabandistas*.⁶⁸

Eskailetertan gora nindoala, ene ostalera, Basquetz andere ezin hobe, hurbildu zitzaidan:
-A, jauna, zeinen berandu zatozen! Ez duzu afaldu? Eta nondik zatoz horrela?

⁶⁶. Deabruak.

⁶⁷. Zer da hori?

⁶⁸. Kontrabandistak.

-Lezotik.

-A, Lezora joan zara?

-Bai, anderea.

Errepikatu egin zuen oster, pentsakor:

-Lezotik?

-Bai, eta zu, ez al zara nehoiz egon?

-Ez, jauna!

-Eta, zergatik?

-Bada, herri honetakoak, ez garelako nehoiz joaten Lezora!

-Eta zergatik ez zoazte ba?

-Ez dakit!